



EUSKADIKO **GAZTEEN** **EMANTZIPAZIO-EGOERAREN** DIAGNOSTIKOA

2020



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



GAZTEEN EUSKAL
BEHATOKIA OBSERVATORIO VASCO
DE LA JUVENTUD



EUSKADIKO GAZTEEN EMANTZIPAZIO-EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2021

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-bin_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia:

1.a, 2021eko martxoa

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Gazteen Euskal Behatokia

Ikerketa-taldea:

Miren Bilbao, Oskar Longo, Itziar Urresti eta Nieves Corcuera

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Gazteen Euskal Behatokia



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu dira: Aitorpena – Ez-komertziala – Obra eratorririk gabea 4.0 Unported de Creative Commons (informazio gehiago: http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

SARRERA ETA METODOLOGIA	5
1. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN KOPURUA ETA HORREN ONDORIO DEMOGRAFIKOAK.....	6
1.1. 30 urte bete baino lehen, gutxiengoa dira emantzipatutako gazteak.....	6
1.2. Euskadiko gazteek, batez beste, 30 urte dituztela uzten diote gurasoei bizitzeari	8
1.3. 15-29 urteko hamar gaztetik lauk uste dute ezin izango dutela beren kabuz bizi datorren urtean, hala nahi izan arren	10
1.4. Berandu emantzipatzearen ondorioak ez dira pertsonalak bakarrik, sozialak ere badira.....	11
2. GAZTEEN EKONOMIA- ETA LAN-EGOERA	15
2.1. 16-29 urteko gazteen enplegu-tasa % 40 ingurukoa da	16
2.2. Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruk lanaldi partziala dute.....	17
2.3. 18-29 urteko gazte soldatadunen batez besteko soldata hilean ia 1.200 eurokoa da	18
2.4. 30 urtetik beherako soldatapeko hiru gaztetik bik aldi baterako kontratua du	19
2.5. Enpleguarekin lotutako adierazleek okerrera egin dute 2020an.....	20
3. ETXEBIZITZAREN GARESTITASUNA EUSKADIN	23
3.1. Etxebizitzen prezioa, erosteko zein alokatzeko, garestitzen ari da	23
3.2. Hipoteka edo alokairu-errenta ordaintzeak soldataren erdia inguru bideratzea dakarkie 18-34 urteko soldatadunei	24
3.3. Gipuzkoako gazteek hartu behar dituzte beren gain kostu ekonomiko handienak etxebizitza bat eskuratzeko	25
3.4. Gazteek merkatuko batez bestekoa baino etxebizitza merkeagoak eskuratzen dituzte, eta gutxi dira bakarrik emantzipatzen diren gazteak	25
4. GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZAK.....	27
4.1. 2019an, 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ia erdiak alokairuan bizi dira.....	27
4.2. Emantzipatutako gazte gehienak bigarren eskuko etxebizitzetan bizi dira, batez ere pisuetan, batez beste 40 urtetik gorako antzinatasuna dutenak	29
5. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA, LEHENTASUNAK ETA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO AUKERAK.....	33
5.1. Emantzipatu gabeko hiru gaztetik batek dio etxebizitza behar duela Euskadin (% 32,8), eta gehienek nahiago lukete beren udalerrian geratu.....	33
5.2. 2019an Euskadin etxebizitza behar zuten gazte emantzipatu gabeen artean, erostea nahiago luketenak alokatzea nahiago luketenak bezainbeste dira.....	35
5.3. Euskadin etxebizitza behar duten gazte emantzipatu gabeen % 34,6k aurreikusten du bi urteko epean emantzipatuko dela; % 41,8k, aldiz, ez du uste lau urte baino lehen emantzipatuko denik.....	36
5.4. Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen erdiek uste dute alokairu-erregimena errenta merkeagoekin sustatzea izango litzatekeela etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusia (% 51,4).....	40

6. EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZA PUBLIKOAK	43
6.1. Etxebizitza babestua	43
6.1.1. Azken urteotan, Eusko Jaurlaritza alokairuko etxebizitza babestuak sustatzen ari da	43
6.1.2. Etxebizitza babestuan emantzipatutako gazteen ehunekoa askoz handiagoa da Araban gainerako lurralde historikoetan baino	48
6.1.3. 2020an, Euskadin esleitutako lau etxebizitza publikoetatik bat 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat izan da.....	49
6.1.4. Etxebiden izena ematen duten gazte gehienek alokairuko etxebizitza eskatzen dute.....	51
6.2. Laguntza zuzenak eta Gaztelagun programa abian jartzea	54
7. TXOSTENEAN ERABILITAKO ADIERAZLE NAGUSIEN LABURPEN-TAULA.....	58
BIBLIOGRAFIA	

SARRERA ETA METODOLOGIA

Gazteen Euskal Behatokiak emantzipazioari dagokionez 2020an euskal gazteek bizi duten egoeraren diagnostikoa eskaintzen du txosten honetan. Ez da gaiari buruzko inkesta espezifiko baten emaitzetan oinarrituta egindako txosten bat, baizik eta, hura egiteko, erreferentzia gisa hartu dira Gazteen Euskal Behatokiak berak egindako hainbat azterlanetako datuak, bai eta beste erakunde batzuek egindako ikerketetatik ateratakoak ere, edota hainbat erakundek argitaratutako edo Behatokiari emandako estatistika batzuk, hala nola Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak edo Eustatek (Euskal Estatistika Erakundeak) egindakoak, besteak beste.

Dokumentu honen helburu nagusia da Euskadin bizi diren 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen egoera aztertzea, emantzipazioari dagokionez: zenbat pertsona dauden emantzipatuta eta zer baldintzatan, zenbat emantzipatu nahiko luketen, zer zailtasunei aurre egin beharko lieketen, zer baliabide publiko dituzten emantzipatzeko, eta abar. Helburua da ahalik eta ikuspegi zabalena eta eguneratuena ematea euskal gazteen emantzipazioari dagokionez.

Azken urteetako datuen bilakaera aztertuko dugu, eta, gainera, egokia eta posible denean, Europar Batasuneko estatuetaoekin (EB28) kontrastatuko dira. Datu horien iturri nagusia Europako Estatistika Bulegoa (Eurostat) izango da.

Espero dugu diagnostiko hau baliagarria izatea gai hau aztertzeke edo horri buruzko erabaki politikoak hartzeke interesa duten guztientzat.

1. EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN KOPURUA ETA HORREN ONDORIO DEMOGRAFIKOAK

Lehenik eta behin, gazte-gaiak lantzen ditugunean, adin-muga 30 urtetik beherakoa izaten da. "Euskadiko gazteak" (Gazteen Euskal Behatokiak lau urtean behin egiten duen eta estatistika ofiziala den ikerketa) bezalako azterlanek gaztetzat hartzen dituzte 15 eta 29 urte bitarteko pertsonak, Injuvek (Espainiako Gazteriaren Institutua) edo Eurostatek (Europako Estatistika Bulegoa) gazteriari buruzko estatistiketan egiten duen bezala.

Hala ere, emantzipazioaz ari garenean, beharrezkoa da adin-muga hori handitzea; izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, 30 urte bete aurretik gutxi dira emantzipatutako pertsonak. Era berean, legez 16 urtetik aurrera emantzipatzea posible bada ere, oso pertsona gutxi emantzipatzen dira adin-nagusitasuna lortu aurretik. Horregatik guztiagatik, azterketa gehiena 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen egoeran oinarrituko da.


1.1. 30 urte bete baino lehen, gutxiengoa dira emantzipatutako gazteak

18 eta 34 urte bitarteko gazteen % 38,5 emantzipatuta daude, hau da, erdia baino gutxiago. Edonola ere, alde handiak daude adinaren arabera: 25 urte bete aurretik, Euskadiko gazteen % 7,4 baino ez dago emantzipatuta; 25 eta 29 urte artean, % 42,5; eta 30 eta 34 urte artean, gehienak emantzipatuta daude (% 73,2). Nolanahi ere, esan behar da 35 urterekin lau pertsonatik batek gurasoekin bizitzen jarraitzen duela.

18 eta 34 urte bitartean, emakume emantzipatu gehiago daude (% 43,0) gizon emantzipatu baino (% 34,1).

1.1. grafikoa

18-34 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasa 2019an, sexuaren eta adinaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

EAEn 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatuen ehunekoa Europako batez bestekoa baino dezente txikiagoa da (% 51,8) eta ipar Europan dauden zifretatik oso urrun dago (Danimarkan, Finlandian eta Suedian gazteen % 75 baino gehiago emantzipatuta dago).

1.2. grafikoa

18-34 urteko biztanleen emantzipazio-tasa Euskadin eta EB-28an 2019an (%)




* Erresuma Batuko eta EBren batez besteko datuak 2018koak dira

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea) eta Eurostat (Gaztearen Estatistikak, Youth data)

18-34 urte bitarteko euskal gazteen emantzipazio-tasa % 40tik gorakoa zen 2015era arte (nahiz eta ez zen inolaz ere % 50era iritsi), eta 2016tik aurrera % 40ko atalase horretatik behera dago.

1.3. grafikoa

18-34 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasaren bilakaera Euskadin (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

1.2. Euskadiko gazteek, batez beste, 30 urte dituztela uzten diote gurasoekin bizitzeari

2019an, euskal biztanleriaren emantzipatzeko batez besteko adina 30 urtekoa zen (30,2, zehatz-mehatz). Batez besteko adin hori ez da nabarmen aldatu azken urteetan, 2001ean ere bazegoen 29 urtetik gora (29,1 zehazki).


Gazteak emantzipatzen diren batez besteko adina (30,2) eta 15-29 urteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina (24,5 urte, batez beste, 2020an¹) alderatzen baditugu, ikusten da emantzipazioa adin egokiena baino ia sei urte beranduago gertatzen dela.

Gainera, Euskadin emantzipatzeko batez besteko adina Europako batez bestekoa (25,9 urte) baino lau urte beranduagokoa da; izan ere, Europako berantiarrenetakoa da, eta horrek azaltzen du Euskadiko eta Europako gazte emantzipatuen kopuruan dagoen aldea.

¹ "Euskadiko gazteak 2020" azterlanaren datuen aurrerapena.

1.4. grafikoa

Emantzipatzeko batez besteko adina Euskadin eta EB-28an 2019an (urteak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eurostaten *Emantzipazioa* eta Gazteen Estatistikak (Youth data) sailetik abiatuta

Europarekin alderatzeko grafikoetan ikus daitekeenez, bi errealitate oso desberdin daude Europako hegoaldeko eta iparraldeko herrialdeetan. Eta Euskadi hegoaldeko herrialdeen egoera berean dago. Ekonomia- eta lan-egoerak, emantzipaziorako laguntza publikoek eta, batez ere, kultura-desberdintasunek markatzen dituzte, neurri handi batean, desberdintasun horiek.

1.3. 15-29 urteko hamar gaztetik lauk uste dute ezin izango dutela beren kabuz bizi datorren urtean, hala nahi izan arren

30 urtetik beherako gazteen emantzipatzeko nahiei eta aukerei erreparatzen badiegu, ikusten da 2020an 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 40,5ek uste dutela urtebeteko epean ezin izango dutela beraien emantzipazio-proiektuak gauzatu edo aurrera egin, gurasoen etxetik alde egitea gustatuko litzaiekeelako, baina ez dutelako aukerarik ikusten, edo, gaur egun beren kontura bizi arren, gurasoen etxera itzuli beharko dutela uste dutelako, hala nahi ez badute ere. Horri "emantzipazio zapuztua" deitzen diogu.


Horrek ez du esan nahi, nolanahi ere, gainerako gazteek emantzipatuta biziko direla uste dutenik. 30 urtetik beherako pertsona asko, batez ere 20 urtetik beherakoak, ez dira emantzipatuta bizi, baina ez dute emantzipatu nahi, hainbat arrazoiengatik: oso gazteak direlako, oraindik ikasten daudelako eta baliabide propiorik ez dutelako, etab.

Emantzipazio zapuztuaren ehunekoa ia berdina da 2020an eta 2019an, eta, edonola ere, aurreko urteetako baino txikiagoa da.

Urtebeteko epean emantzipatuta bizitzerik izango ez dutela uste duten gizon gazteen ehunekoa apur bat handiagoa da emakume gazteena baino (% 42,3 eta % 38,8, hurrenez hurren, 2020an); beharbada, gizon gazteek emakume gazteek baino joera handiagoa dutelako bakarrik bizitzeko, eta horrek kostu ekonomiko handiagoak dakartzalako.

1.5. grafikoa

Emantzipazio zapuztuaren ehunekoaren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira seriea)

1.4. Berandu emantzipatzearen ondorioak ez dira pertsonalak bakarrik, sozialak ere badira

Gazteen emantzipazio berantiarrek ondorio negatiboak ditu, ez bakarrik gazteentzat, baita gizarte osoarentzat ere.

Maila indibidualean, bizi-proiektuen garapenean atzerapena dakar: modu independentean bizitzea eta, hala nahi izanez gero, familiak eratzea, seme-alabak izatea...; eta, batzuetan, proiektu horietako batzuei uko egitea ere badakar, hala nola, nahi den seme-alaba kopurua ezin izatea eta/edo seme-alabak nahi den adinean ezin izatea.

Egoera horren adibide gisa, esan dezakegu Euskadin 2019an seme-alabarik ez zeukaten 30 urtetik beherako hamar gaztetik zazpik (% 71,8) adierazi zutela gustatuko litzaiekeela (asko edo nahikoa) etorkizunean seme-alabak izatea. Beraien ustez, lehen seme-alaba izateko adin egokiena, batez beste, 30 urtekoa zen (29,7 urte, zehazki); hala ere, seme-alabak eduki nahi zituztenen % 63,9k bakarrik uste zuten adin ideal horretan eduki ahal izango zituztela; beste % 30,4k uste zuten ezin izango zituztela adin horretan eduki, hau da, ama edo aita izateko proiektu hori atzeratu beharko zutela².


Norberaren nahiak alde batera utzita, estatistika-datuek erakusten dute amek lehen seme-alaba izateko batez besteko adina atzeratu egin dela; 2019an, Euskadin, 31,9 urtekoa zen, batez beste. Batez besteko hori Europako altuena da, 2018ko Europako datuei erreparatuta (eskuragarri dauden azken datuak); izan ere, 2018an, Europako batez bestekoa 29,2 urtekoa zen.

Izan ere, urte horretan bertan, Euskadin jaiotako haurren % 18,2 soilik izan ziren 30 urtetik beherako amenak. Datu horiek Europar Batasunean 2018an erregistratutako datuekin alderatuz gero (eskuragarri dauden azken datuak), ikusten da Euskadin 30 urtetik beherako ametatik jaiotako haurren ehunekoa Europako txikiena izateaz gain, alde handia dagoela Europako batez bestekoarekin alderatuta (% 41,1 baita Europako batez bestekoa).

² Gazteen Euskal Behatokia (2020): "Seme-alabarik ez duten Euskadiko hamar gaztetik zazpik aita edo ama izan nahi dute etorkizunean" [linean]. Artiluku hori hemen dago eskuragarri:
https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/estadistikak_2020/eu_6778/adjuntos/maternidad_paternidad_2020_e.pdf [Kontsulta: 2021/01/20]

1.6. grafikoa

Lehen semea edo alaba izatean amaren batez besteko adina, EB28ko datuekin alderatuta *
(urteak)



* Euskadiko datuak 2019koak dira, baina EB28koak 2018koak.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, INEren (*Ugalkortasun-adierazleak*) eta Eurostaten (*Fertility indicators*) datuetan oinarrituta


Gainera, lehen seme-alaba jaiotzean amaren batez besteko adina atzeratzeak jaiotza-tasa murriztea eta biztanleria zahartzea ekarri du, berez zahartuta dagoen biztanlerian. Euskadin 2019an biztanleriaren batez besteko adina 46,7 urtekoa zen, Europar Batasuneko zaharrena, Italiakoarekin batera.³

³ Gazteen Euskal Behatokia (2020): "Euskadiko eta, oro har, Europako biztanleriaren batez besteko adina ez da batere gaztea" [linean] Artikulu hori hemen dago eskuragarri:

https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/estadisticak_2020/eu_6778/adjuntos/edad_media_e.pdf [Kontsulta: 2021/01/20]

1.7. grafikoa

Euskadiko eta EBko 28 estatueta bizen batez besteko adina 2019an (urteak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eurostaten datuetan oinarrituta

Biztanleriaren zahartzeak agerian uzten ditu maila sozialean emantzipazio berantiarak dituen ondorioak. Adinekoen kopuruari eustera baliabide ekonomiko eta giza baliabide gehiago bideratzeko beharraz gain, bai pentsio gisa, bai laguntza gisa, bai osasuneko laguntza-baliabide gisa, eta abar, beste ondorio ekonomiko bat du; izan ere, urte batzuen buruan, beren lanagatik kotizatzen duten eta, horrela, Gizarte Segurantzari laguntzen dioten pertsonen kopurua txikiagoa izango da pentsio publikoak jasotzen dituzten pertsonena baino. Egoera horrek politika publikoak birpentsatzera eta gastu sozialei aurre egiteko diru-iturri berriak bilatzera behartuko du.

Bitxia bada ere, gaur egungo etxebizitza-eskaerak behera egingo du, ziurrenik, oraingo parametroetan, behintzat, eta beste etxebizitza-mota batzuen eskaerak gora egingo du, hala nola, nagusientzako tutoretzapeko etxebizitzak, egoitza-plazak eta abar.

2. GAZTEEN EKONOMIA- ETA LAN-EGOERA


Euskadiko gazteen emantzipazio-zifra txikiak ulertzeko, lehenik eta behin haien lan- eta ekonomia-egoerari erreparatu behar zaio. Diru-sarrerarik gabe, ia ezinezkoa da emantzipatzea, eta hala adierazten zuen 2017an emantzipatu nahi zuten 30 urtetik beherako emantzipatu gabeko gazteen % 63,8k; izan ere, emantzipatzeko oztopo bat zen diru-sarrera propioak izateko zailtasuna⁴.

Euskadin, 30 urte bete baino lehen, gazteen erdiak baino gutxiagok egiten du lan; izan ere, 25 urtera arte, gehienak ikasten ari dira; zehazki, 16 eta 19 urte bitartekoen % 97,8 ikasten ari da, eta 20 eta 24 urte bitartekoen % 71,2k ikasten jarraitzen du. Portzentaje hori nabarmen murrizten da 25-29 urtekoen taldean, % 19,3k ikasten jarraitzen baitute, baina gehienak lan-merkatuan sartu dira dagoeneko⁵.

Ikasleen bolumenari buruzko datu horiek ikasketekin lotutako oinarritzko adierazle batean jasotako zifra altuak azaltzen dituzte: goi-mailako hezkuntzan titulazioa duen 30-34 urteko gazteen tasa.

2.1. grafikoa

Goi-mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, Euskadin eta Europar Batasuneko batez bestekoa (%)



Iturria: EUSTAT (2020 Europa adierazleak)

⁴ Longo, Oskar; Bilbao, Miren eta Corcuera, Nieves (2018): *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017* [linean] Hemen eskuragarri:

https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_coleccion_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Emancipacion%20de%20la%20juventud%202017_eus.pdf (113. or.) [Kontsulta: 2021/01/20]

⁵ "Euskadiko gazteak 2020" azterlanaren datuen aurrerapena.

Euskadin, 2019an, hirugarren mailako titulazioa duten 30-34 urteko biztanleen ehunekoa, gradu, master edo doktoregoko ikasketak eta goi-mailako heziketa-zikloak barne hartzen dituenak, % 48,0koa da, hau da, 30-34 urteko Euskadiko gazteen ia erdiek goi-mailako ikasketak dituzte. Ehuneko hori Europako batez bestekoaren (% 41,6) gainetik dago. Aipatzekoa da, bestalde, emakumeek gizonen baino ehuneko handiagoak dituztela goi-mailako titulazioari dagokionean (% 53,0 eta % 42,9, hurrenez hurren, 2019an).

Adierazle honek balio positiboak ditu, baina zeharka adierazten digu lan-merkatuan sartzea ez dela gertatzen (gutxienez erabateko laneratzea, lanaldi osoko enpleguekin) 20-22 urte bete aurretik, hau da, Lanbide Heziketako goi-mailako graduak edo unibertsitate-graduak amaitzeko aurreikusitako adinaren aurretik.

Bestalde, ikasle kopuru handi hori egoteak gazteei lotutako datu ekonomiko batzuk ere azaltzen ditu. 16 eta 29 urte bitarteko gazteen erdiak baino gehiago beren gurasoen edo familiako beste batzuen diru-sarreretatik bizi dira batik bat (2017an⁶ % 54,4 eta 2020an⁷ % 56,6). Eta, aipatzekoa da ere, adin-tarte horretako hamar gaztetik hiruk bakarrik dutela 600 euro baino gehiago hilean (% 31,4, 2017an eta % 31,3, 2020an).

2.1. 16-29 urteko gazteen enplegu-tasa % 40 ingurukoa da

2009az geroztik, enplegua duten 16-29 urteko gazteen ehunekoa ez da % 50era iristen. 2019an % 39,8k egiten zuen lan.

Enplegu-kopuru txiki horretan, ikasten ari diren gazteen bolumenak ez ezik, langabezian dauden gazteen bolumenak ere eragina du. Euskadiko 16-29 urteko gazteen langabezia-tasa % 17,8koa zen 2019an, Europako batez bestekoaren gainetik (% 11,2).

2019ko datuak taldeka aztertzean zera ikuste dugu: 25 urte bete aurretik, bost gaztetik bat baino ez da lanean ari (16 eta 24 urte bitartekoen enplegu-tasa % 21,3 da), baina 25 eta 29 urte bitartekoen artean, hamar gaztetik zazpi dira lana dutenak (% 70,5). Bestalde, gizonen eta emakumeen enplegu-tasa oso antzekoa da: 2019an gizon gazteen % 40,3k eta emakumeen % 39,3k lan egiten zuten.


Gazteen okupazioari buruzko zifra horiek biztanleria osoarenekin alderatzen baditugu, ikusten da 30 urtetik beherako kolektiboan lanean ari diren pertsonen ehunekoa batez besteko orokorraren azpitik dagoela.

⁶ Longo et al. *Ob. cit.*

⁷ "Euskadiko gazteak 2020" azterlanaren datuen aurrerapena.

2.2. grafikoa

16-29 urteko gazteen eta 16 urtetik gorako biztanleria osoaren enplegu-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Enplegu-tasa % 82,5koa da 30-34 urteko adin-taldean. Kolektibo horretan, gizonak emakumeek baino enplegu-tasa handiagoak dituzte (% 87,5 eta % 77,7, hurrenez hurren).

2.2. Lan egiten duten 16 eta 29 urte bitarteko hamar gaztetik hiruk lanaldi partziala dute

Lanaldi partzialeko enplegu-tasak astean 30 ordutik behera lan egiten duten 16-29 urteko gazte okupatuen ehunekoa islatzen du. Tasa horrek gora egin du 2018tik 2019ra, % 31,8ra iritsi arte. Hori da seriean jasotako lan partzialaren zifrarik altuena.

Gizon eta emakume gazteen arteko aldea nabarmena da. Emakume landunen % 38,7k lanaldi partzialean lan egiten du, eta gizonen % 25,4k.⁸ Baliteke, beste faktore batzuen artean, emakumeek gizonak baino gehiagotan lanaldi partzialeko lanak hartzea lana eta ikasketak uztartu ahal izateko; aurretik ikusi baitugu emakumeen artean goi-mailako tituludunen portzentajea gizonena baino handiagoa dela eta horrek esan nahi du emakumeek, oro har, gizonak baino urte gehiago ematen dituztela ikasten.

⁸ Egoera horretan gizon gazte gutxi daudenez, beharrezkoa da emaitzak arretaz hartzea, laginketa-akats oso handia baitute; hala ere, urteetan zehar mantendu diren sexuaren arabeko aldeek joera bermatzen dute.

2.3. grafikoa

Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16-29 urteko gazte okupatuen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Europako gazteen datuekin alderatuz gero, ikusten da Euskadi Europar Batasuneko batez bestekoaren gainera dagoela, lanaldi partzialari dagokionez (EBn batez bestekoa % 23,1 baita); bai lanaldi partziala duten emakume gazte kopuruan (% 30,7, batez beste, EBko 28 estatuetan, 2019an), bai lanaldi partziala duten gizon gazteen kopuruan ere (% 16,5, batez beste, EBn).

30 eta 34 urte bitartekoan artean, lanaldi partzialean lan egiten duten gazteen ehunekoa txikiagoa da, % 19,6koa zehazki Euskadin, baina adin horretako gizonen eta emakumeen arteko aldeak nabarmenak dira oraindik ere: 30 eta 34 urte bitarteko gizon landunen % 10,9k lanaldi partzialean egiten dute lan; aldiz, adin horretako emakume landunen artean, ehunekoa % 29,1ekoa da. Adin-tarte honetan amatasunak eragin handia du, ama gazte askok beren lanaldia murrizten baitute, aita gaztek baino askoz gehiagok.

Arrazoiak edozein direla ere, eta borondatezkoak diren ala ez alde batera utzita, argi dago lanaldi partzial horiek eragin zuzena dutela soldatan.

2.3. 18-29 urteko gazte soldatadunen batez besteko soldata hilean ia 1.200 eurokoa da

2019an, Euskadin 18 eta 29 urte bitarteko gazte soldatadun baten hileko batez besteko soldata garbia 1.199 eurokoa zen.


Emakumeek gizonak baino soldata txikiagoak dituzte (1.102 euro eta 1.325 euro, hurrenez hurren). Alde hauetan eragin zuzena dute lanaldi partzialen ehunekoak, bai eta gizonen eta emakumeek betetzen dituzten lan motek edo mailek ere (Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Estatistika Organoak eman dizkigun 2019ko Lan Merkatuaren Erroldaren datuen

arabera, 16 eta 29 urte bitarteko gizon landunen %3,5ek zuzendaritza-kargua du bere enpresan; emakume gazteen kasuan, aldiz, % 1,5ek).

30 urtetik beherako soldatapeko gazteen batez besteko soldata 2019an azken urteetan erregistratutakoaren antzekoa da.

2.4. grafikoa

18-29 urte bitarteko gazte soldatasunen batez besteko soldata garbiaren bilakaera, sexuaren arabera (€)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

30-34 urteko taldearen batez besteko soldata garbia hilean 1.452 eurokoa da 2019an. 2017 eta 2018. urteetako datuekin konparatuz gero, igoera txiki bat izan da: 1.394 eurokoa eta 1.433 eurokoa baitzen, urte horietan.


2.4. 30 urtetik beherako soldatapeko hiru gaztetik bik aldi baterako kontratua du

Enpleguaren behin-behinekotasunak zalantza sortzen du emantzipazio-proiektu batean murgiltzeko, epe laburrean etxebizitza bat erosteak edo alokatzeak dakartzan gastuei aurre egin ahal izango zaien jakin gabe. Era berean, behin-behinekotasunak zuzenean eragiten du finantza-erakunde batek hipoteka-mailegu bat emateko aukeretan, etxebizitza erostea aukeratuz gero.

2019an, 16-29 urteko soldatapeko gazteen % 64,3k aldi baterako kontratua zuten; Euskadiko soldatapeko biztanleria osoan, berriz, % 30,6k. Soldatapeko gazteen behin-behinekotasun-tasak etengabe egin zuen gora 2012 eta 2018 artean, baina 2019an apur bat behera egin zuen. Hala ere, Euskadiko gazteen behin-behinekotasun-tasa Europar Batasuneko batez bestekoaren bikoitza da (2019an % 31,0).

2.5. grafikoa

Euskadiko 16-29 urteko soldatapekoen eta 16 urtetik gorako soldatapeko guztien behin-behinekotasun-tasaren bilakaera (%)



Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Ez dago alde handirik gizon eta emakume gazteen artean, nahiz eta emakumeek behin-behinekotasun tasa zertxobait handiagoa duten (% 65,9) gizonena baino (% 62,7).

30-34 urtekoen behin-behinekotasun tasa tarteko balioan dago 30 urtetik beherako gazteen tasaren eta biztanleria osoaren tasaren artean, hain zuzen, % 41,6an. Hala ere, tasa hori dezente altuagoa da 30-34 urteko emakumeen artean (% 47,5) adin horretako gizonen artean baino (% 35,9).

2.5. Enpleguarekin lotutako adierazleek okerrera egin dute 2020an

Aurreko ataletan ikusi dugunez, 30 urtetik beherako pertsonen erdiak baino gutxiagok dute lana eta, beraz, diru-sarrera propioak. Gainera, euren soldatak ez dira altuak, ezta finkoak ere, behin-behinekotasun maila altua dela eta. Horren ondorioz, ez da erraza etxebizitza bat eskuratzea, horrek gutxieneko diru-sarrera egonkorak behar baititu hileko ordainketei aurre egin ahal izateko.


Gainera, Covid19k sortutako egoerak negozioak ixtea, enplegua aldi baterako erregulatzeak espedienteak (ERTEs) eta abar ekarri du eta, hori guztiaren ondorioz, enpleguarekin lotutako adierazleek bilakaera negatiboa izan dute 2019tik 2020ra.

Alde batetik, enplegu-tasak behera egin du 2020an, eta, nahiz eta susperraldi txiki bat izan urteko azken hiruhilekoan, ez da pandemiaren aurreko mailetara iristen. Gauza bera gertatzen da langabezia-tasarekin, 2019an eta 2020ko lehen hiruhilekoan erregistratutako kopuruen gainetik baitago (nahiz eta enplegu-erregulazioko espedienteetan eta enplegu aldi baterako

erregulatzeko espedienteetan dauden pertsonak ez diren langabeziaren zifretan zenbatzen). Adierazi behar da emakumeak hobeto ari direla aurre egiten egoerari, eta langabezia gehiago hazten ari dela gizon gazteen artean (ikus Gazteen Euskal Behatokiaren enplegu-estatistikak).

2.6. grafikoa

16-29 urteko gazte landunen hiruhileko enplegu- eta langabezia-tasen bilakaera azken urtean (%)




Iturria: Eustat (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Bestalde, enpleguarekin lotutako itxaropenek ere joera negatiboa izan dute. Horietan ere, pandemiaren eta lan-panoramaren bilakaerak eragina izan dute, ziurrenik. 2020an, Euskadin lan egiten duten 16-29 urteko pertsonen ia erdiek (% 47,8) uste dute oso edo nahiko litekeena dela urtebeteko epean lan-baldintzak okertzea edo enplegua galtzea. Sentsazio hori are handiagoa da emakumeen artean (% 49,2). Enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskua nabarmen handitu da 2019ko datuekin alderatuta (% 34,0tik % 47,8ra).

2.7. grafikoa

Enplegua galtzeko edo lan-baldintzak okertzeko arriskua 16 eta 29 urte bitarteko gazte okupatuen artean, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira seriea)

Eta langabezian dauden artean, urtebeteko epean lana aurkitzeko itxaropenak behera egin du 2019ko datuekin alderatuta (orduan % 92k uste baitzuten lana aurkituko zutela). 2020an, 15 eta 29 urte bitarteko langabeen % 64k uste dute 2021ean lana aurkituko dutela. Langabezian dauden emakumeen artean, lana aurkitzeko itxaropena zertxobait txikiagoa da langabezian dauden gizonena baino (% 61 eta % 68, hurrenez hurren).

2.8. grafikoa

Lana aurkitzea aurreikustea langabezian dauden 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Aurrera Begira seriea)

3. ETXEBIZITZAREN GARESTITASUNA EUSKADIN

2017an, emantzipatu nahi zuten 30 urtetik beherako gazte emantzipatu gabeen % 68,4k adierazi zuten Euskadiko etxebizitzaren garestitasuna zailtasun handia izaten ari zela beren kontura bizitzera joan ahal izateko⁹.

Hori ez da harritzekoa merkatu libreko etxebizitzaren prezioak kontuan hartzen baditugu eta gazteen aukera ekonomikoekin alderatzen baditugu.

3.1. Etxebizitzaren prezioa, erosteko zein alokatzeko, garestitzen ari da

2016tik 2019ra, Euskadin erositako etxebizitzak notario aurrean eskrituratzeko prezioen batez besteko zenbatekoa handitu da, bai eta hileko alokairu-errenten zenbatekoa ere.¹⁰

3.1. taula

Euskadiko merkatu libreko etxebizitzaren salerosketako eta alokairuko batez besteko prezioen bilakaera (eurotan)

Urtea	Salerosketen batez besteko prezioa	Alokairu-errenten batez besteko prezioa
2016	201.321	633
2017	202.483	642
2018	205.234	667
2019	211.434	681
	<i>Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia, eskrituratutako prezioetatik abiatuta</i>	<i>Iturria: Alokairu Merkatuaren Estatistika (AME), gordailututako fidantzetatik abiatuta</i>

Merkatu libreko prezioek gora egin dutenez, eta azken urteotan gazteen batez besteko soldatak nahiko egonkor mantendu direnez, etxebizitza alokairuan eta jabetzan eskuratzeko kostuak gora egin du, hurrengo epigrafean ikusiko dugun bezala.

Etxebizitza eskuratzeko kostua adierazle teoriko bat da (batez besteko balioetan oinarritzen da, eta ez kasuistika indibidualetan) eta zera neurtzen du: 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko pertsona batek egin beharko lukeen ahalegina, bai etxebizitza baten hipotekaren lehen kuota ordaintzeko (etxebizitza merkatuko batez besteko prezioan erosi dela eta hipoteka-mailegua interes-tasaren, amortizazio-epean eta abarrean batez besteko baldintzetan kontratatu dela kontuan hartuta), bai etxebizitza baten alokairu-errenta ordaintzeko (alokairu-errenten batez besteko prezioan eta bestelako gastu gehigarririk gabe, hala nola bitartekariei egindako ordainketak, etab.), kontuan hartuta soldatapeko gazte horrek bere adineko pertsonari dagokien

⁹ Longo et al. (2018). *Ob cit.*

¹⁰ Hileko alokairu-errenten zenbatekoa kalkulatzeko, urte horretan sinatu edo berritutako ohiko etxebizitza kolektiboen alokairu-kontratuatarako Eusko Jaurlaritzaren erregistroan gordailututako fidantzak hartzen dira kontuan. 2019ko datua urteko lehen bi hiruilekoetako batez besteko haztatuari dagokio, ez baitugu urte osoko daturik.

batez besteko soldata kobratzen duela eta bere kabuz erosi edo alokatuko duela, hau da, bere soldatarekin bakarrik.


3.2. Hipoteka edo alokairu-errenta ordaintzeak soldataren erdia inguru bideratzea dakarkie 18-34 urteko soldatadunei

2019an, 18-34 urteko gazte soldatadun batek, batez besteko soldata izanik, soldataren % 55,1 erabili beharko luke bere kabuz hipoteka-mailegu baten lehen kuota ordaintzeko (urte horretan kontratatutako hipoteka-kredituen batez besteko iraupen-baldintzekin eta interes-tasekin), merkatu libreko batez besteko prezioan etxebizitza bat erosteko; horri deitzen diogu etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua. Alokairuaren alde eginez gero, hileko ordainketa soldataren % 50,4koa izango litzateke.

Hipotekaren edo alokairu-errentaren ordainketari aurre egiteak dakarren ahalegin ekonomikoa handitu egin da 2016arekin alderatuta.

3.1. grafikoa

18-34 urteko soldatapeko pertsona batek hipoteka-kuota edo hileko alokairu-errenta bere kabuz ordaintzeko erabili beharko lukeen soldataren ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Gomendatutako gehieneko zorpetzea % 30ekoa da, hau da, gomendatzen da etxeko diru-sarreraren % 30 baino gehiago ez erabiltzea etxebizitza ordaintzeko, dela hipoteka-kuota, dela alokairu-errenta. Ikusi dugunez, 18 eta 34 urte bitarteko soldatapeko gazteek % 30 hori baino dezente gehiago erabili behar dute bakarrik emantzipatzea erabakitzen badute.

Gazteak soldataren % 30 baino gehiago erabili behar ez izateko, % 83,7 igo beharko litzateke batez besteko soldata hori, erosi nahi izanez gero, edo % 67,9, alokatu nahi izanez gero, 2019ko datuen arabera.

Izan ere, 2019an 18 eta 34 urte bitarteko pertsonen batez besteko soldatekin eta kontuan hartuta gehienez soldataren % 30 etxebizitzara bideratzen dela, gazte horiek gehienez ere 115.099 euroko etxebizitza eros lezakete (merkatuko batez besteko prezioa baino 96.335 euro gutxiago), edo gehienez 405 euroko alokairu-errenta ordaindu (merkatu libreko batez besteko errenta baino 276 euro gutxiago).

3.3. Gipuzkoako gazteek hartu behar dituzte beren gain kostu ekonomiko handienak etxebizitza bat eskuratzeko

Euskadiko hiru lurralde historikoen artean etxebizitzaren prezioan dauden aldeak nabarmenak dira, eta eragina dute lurralde horietako bakoitzeko gazteek beren gain hartu behar dituzten emantzipazio-kostuetan.

3.2. taula

Euskadiko eta lurralde historikoetako merkatu libreko etxebizitzak salerosteko eta alokatzeko batez besteko prezioak 2019an¹¹ (euroak)

2019	Salerosketen batez besteko prezioa (€)	Etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua (%)	Alokairu-errenten batez besteko prezioa (€)	Etxebizitza alokairuan eskuratzeko kostua (%)
Euskadi	211.434	55,1	681	50,4
Araba	169.762	46,1	612	47,1
Bizkaia	203.676	52,7	681	50,0
Gipuzkoa	239.369	61,9	707	51,9
<i>Datuen iturriak</i>	<i>Notariotzaren Kontseilu Nagusia, eskrituratutako prezioetatik abiatuta</i>	<i>"Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2019"</i>	<i>Alokairu Merkatuaren Estatistika, gordailututako fidantzetatik abiatuta</i>	<i>"Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2019"</i>

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, Gipuzkoako gazteek hartu behar dituzte beren gain kostu ekonomiko handienak bakarrik emantzipatzea aukeratuz gero, lurralde horretako etxebizitzaren prezioa Euskadiko batez bestekoa baino handiagoa baita. Aitzitik, Arabako gazteek egin behar diete aurre emantzipatzeko kostu ekonomiko txikienei.

3.4. Gazteek merkatuko batez bestekoa baino etxebizitza merkeagoak eskuratzen dituzte, eta gutxi dira bakarrik emantzipatzen diren gazteak

Aurreko atalean emandako datuak etxebizitzaren merkatuko batez besteko prezioei buruzkoak dira. Baina 2019an gazte emantzipatuei galdetu zitzairen hilean zenbat ordaintzen zuten hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko.

2019an, etxebizitza erosita (eta etxebizitza hori aldatzeko edo birgaitzeko premia ez zuten) emantzipatutako 18 eta 34 urte bitarteko gazteek hilero ordaintzen zituzten hipoteka-kuoten

¹¹ Alokairu-errentei buruzko datuak ohiko etxebizitza kolektiboei dagozkie, eta 2019koak kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzaren erregistroan urteko lehen bi hiruilekoetan gordailututako fidantzen zenbatekoen batez besteko haztatua egin da, ez baitugu urte osorako daturik.


batez besteko zenbatekoa 502 eurokoa zen (2019ko laugarren hiruhilekoan Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistratzaileen Elkargoak hilero erregistratzen zituen 636 euroak baino gutxiago¹²).

2019an 35 urtetik beherako gazte emantzipatuek hilero ordaintzen zituzten alokairu-errenten batez besteko zenbatekoa 615 eurokoa zen, urteko lehen sei hilekoan Euskadin etxebizitza kolektibo libreen alokairu-errenten batez bestekoaren azpitik (681 baitzen batez besteko hori).

Izan ere, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, jabetzako etxebizitzan zein alokairuan emantzipatutako gazte gehienek adierazten dute beren etxebizitza pisu bat dela, bigarren eskukoa eta Euskadiko etxebizitzaren batez bestekoa baino txikiagoa; hori dela eta, ulertzekoa da gazteak bizi diren etxebizitzaren prezioa edo ordaintzen duten alokairu-errenta, batez besteko orokorra baino merkeagoa izatea.

3.2. grafikoa

Hipoteka-kuota edo alokairu-errenta gisa 18-34 urte bitarteko gazte emantzipatuek 2019an ordaintzen zituzten zenbatekoen eta Euskadin ordaindutako batez besteko zenbatekoen alderaketa (eurotan)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, bere datuak ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin, 2019") eta Erregistratzaileen eta Erregistroen Elkargoaren datuak eta Alokairu Merkatuaren Estatistika (EMA) oinarri hartuta.

Gainera, 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 17,2 soilik bizi da bakarrik. Emantzipatutako gazteen etxeetan bizi diren pertsonen ohiko kopurua 3 da (2,9 zehazki). Pertsona gehiago elkarrekin bizitzeak gastuak denen artean banatzea eta, horrela, etxebizitzako hileko gastuei hobeto aurre egitea dakar.

¹² Etxebizitzaren Behatokia: 2019ko Higiezinaren Erregistro Estatistika 4. Hiruhilekoa (Excel taulak) [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse04/eu/contenidos/estadistica/ovv_registral19/eu_def/index.shtml (3.5.1T4 taula) [Kontsulta:2021/01/12]

4. GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZAK

Jarraian, gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren edukitze-erregimena zehazten da, bai eta etxebizitza horien ezaugarriak ere.


4.1. 2019an, 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ia erdiak alokairuan bizi dira

2019an, emantzipatutako gazteen % 45,1 alokairuko etxebizitza batean bizi dira, eta % 42,3 jabetzako etxebizitza batean. Gainerakoak (% 12,5) familiakoek edo enpresak doan edo merke lagatako etxebizitzetan bizi dira.

Gainera, jabetzako etxebizitzetan bizi direnen artean gehiago dira etxebizitza erosi dutenak eta hipoteka-kreditu bat ordaintzen ari direnak (% 33,3) erabat ordainduta dutenak edo oinordetza edo dohaintza bidez jaso dutenak baino (% 9,0).

4.1. grafikoa

18-34 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren edukitze-erregimena 2019an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Adinak alde nabarmena markatzen du edukitze-erregimenean. 30 urtetik beherako pertsona emantzipatuen artean, alokairua da formularik ohikoena (% 65,5); aldiz, aukera hori gutxiengoa da 30-34 urtekoen taldean (% 36,1), erosketaren alde egiten jarraitzen baitute (% 54,1).


Datu horien bilakaerari erreparatuz gero, ikus daiteke alokairuan emantzipatutako 18-34 urteko gazteen ehunekoak nabarmen egin zuela gora hamarkada batean, 2006tik 2016ra, seguruenik higiezinaren burbuilaren boomari erantzunez, zeinak nabarmen igo baitzuen jabetzako etxebizitzaren prezioa (2007an, Euskadin eskrituratutako etxebizitzaren batez besteko prezioa 279.702 eurokoa zen, Notariotzaren Kontseilu Nagusiaren arabera). Hala, 2006an emantzipatutako gazteen % 19,0 soilik bizi zen alokatutako etxebizitza batean, eta 2016an, berriz, % 43,3. 2008an ezarri zen Emantzipatzeko Oinarrizko Errentak (alokairua ordaintzeko

zuzeneko laguntzen multzoa) ere eragina izan zezakeen alokairuan emantzipatutako gazteen ehunekoaren gorakadan. Izan ere, orduan alokairua hautematen zen gazteen emantzipazioaren arazoaren irtenbide gisa, etxebizitza garestia baitzen erosteko.

Hala ere, alokairuan emantzipatutako gazteen ehunekoa nahiko egonkor mantendu da 2016 eta 2019 artean. Aurreko urteetan agertzen ari zen goranzko joeraren etenaren azalpen bat alokairu-errenten prezioaren igoera izan daiteke (eskariaren igoerak eta erabilera turistikorako alokairuen ugartzeak bultzatuta), eta, ondorioz, errenta horien hileroko ordainketari aurre egiteak dakarren ahalegin ekonomikoa handitzea.

4.2. grafikoa

Alokairu-erregimenean emantzipatutako 18-34 urteko pertsonen ehunekoaren bilakaera Euskadin (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa seriea)

Nolanahi ere, 2019ko Etxebizitza Beharren Inkestako datuei erreparatuta, ikusten da alokairuaren aukera ez dela gazteek gehien nahi dutena. Alokairuan bizi diren gehienek diote horrela bizi direla ez dutelako diru-sarrera nahikorik eta egonkorrik erosteko (% 65,4). Eta, gainera, beste % 13,5ek dio aldi baterako irtenbidea dela, erosi ahal izan arte.

4.3. grafikoa

2019an alokairuan emantzipatutako 18-34 urteko gazteek edukitza-erregimen hori aukeratu ahal izateko emandako arrazoiak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

4.2. Emantzipatutako gazte gehienak bigarren eskuko etxebizitzetan bizi dira, batez ere pisuetan, batez beste 40 urtetik gorako antzinatasuna dutenak

Emantzipatutako gazte gehienak (% 83,0) bigarren eskuko etxebizitzetan bizi dira; % 17 soilik bizi dira etxebizitza berri batean. Jabetzan emantzipatutako gazteen % 29,1 etxebizitza berri batean bizi da, eta alokairuan bizi direnen % 4,0 soilik bizi da etxebizitza berri batean.


Horrek azaltzen du gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzetan batez besteko antzinatasuna 42 urtekoa izatea, Euskadiko etxebizitza-parkearen batez besteko antzinatasunaren oso antzekoa (45 urte, Eustaten Etxebizitzaren Udal Estatistikaren arabera¹³).

Zehazki, 50 urtetik gorako etxebizitzetan bizi da gazte emantzipatuen % 38,4, 25 eta 50 urte bitarteko etxebizitzetan % 33,1 eta 25 urtetik beherako etxebizitzetan gazte emantzipatuen % 28,5.

¹³ Eustat, Euskal Estatistika Erakundea: 2019ko Etxebizitzaren Udal Estatistika (taula estatistikoak) [linean] Hemen eskuragarri: https://eu.eustat.eus/estadisticas/tema_274/opt_1/tipo_1/ti_etxebizitzaren-udal-estatistika/temas.html#el [2021ko urtarrilaren 12an kontsultatutako taula: "Euskal AEko familia etxebizitzak, lurralde eremuaren arabera egitura-ezaugarriei jarraiki"]

4.4. grafikoa

18-34 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren antzinatasuna 2019an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019)

Kasu gehienetan, emantzipatutako gazteak pisuetan bizi dira (% 95,4). % 3,4 soilik bizi da familia bakarreko etxebizitza isolatu batean, eta % 1,2, berriz, familia bakarreko etxebizitza atxiki batean.

Etxebizitzaren tamainari dagokionez, gazte emantzipatu gehienak 61 eta 90 metro koadro bitarteko etxebizitzetan bizi dira. 60 m² baino gutxiagoko etxebizitzetan bizi dira % 19,0 eta 90 m² baino gehiagoko etxebizitzetan % 18,6.

Emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren batez besteko azalera 77,4 m²-koa da. Batez besteko hori Euskadiko etxebizitza-parke osoaren batez bestekoa baino txikiagoa da; izan ere, Euskadiko etxebizitzaren batez besteko tamaina 87,2 m²-koa da¹⁴.


Arabako gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren batez besteko azalera (80,6 m²) zertxobait handiagoa da Gipuzkoako eta Bizkaiko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzena baino (78,3 m² eta 75,9 m², hurrenez hurren). Hori bat dator Arabako parkeko etxebizitzaren batez besteko azalera (92,3 m²) Gipuzkoako (86,9 m²) eta Bizkaiko (85,8 m²) parkeena baino handiagoa izatearekin¹⁵. Nolanahi ere, emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzaren tamaina beti da beren lurraldeko etxebizitzaren batez besteko tamaina baino txikiagoa.

¹⁴ Iturria: Eustat: 2019ko Etxebizitzaren Udal Estatistika (ibidem)

¹⁵ Ibidem

4.5. grafikoa

18-34 urteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren batez besteko azaleraren eta Euskadiko etxebizitza-parkearen batez besteko azaleraren arteko alderaketa 2019an, lurralde historikoaren arabera (metro koadroak)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019)

Batez beste, 6 gela edo gune izaten dituzte emantzipatutako gazteak bizi diren etxebizitzek, sukaldea, gela, logelak eta komunak kontuan hartuta. Gazteen etxebizitza gehienek bainugela bakarra dute (% 62,2), baina emantzipatutako gazteen % 37,8k bi bainugela edo gehiago dituzte (Euskadiko batez bestekoa baino pixka bat gehiago, Euskadiko etxebizitza guztien % 33,8k bi bainugela edo gehiago baitituzte).

Emantzipatutako gazteen % 73,0k igogailua dute eraikinean; Euskadiko etxebizitza-parkearen batez bestekoaren ehuneko bera, alegia (% 72,6). Gainera, % 43,5ek trastelekua du eta % 33,9k garajea.

Beren jabetzako etxebizitzetan bizi diren gazteek, oro har, alokairuan bizi direnek baino prestazio gehiago dituztela diote. Hala, 30-34 urteko pertsona emantzipatuek eta emakumeek (jabetzako etxebizitzaren ehunekoak zertxobait handiagoak dira talde horietan) adierazten dute igogailua, garajea edo trastelekua dutela 30 urtetik beherako pertsonen eta gizonek baino neurri handiagoan.

4.1. taula

Igogailua, garajea eta/edo trastelekua duten 18-34 urteko gazte emantzipatuen etxebizitzaren ehunekoa, sexuaren, adinaren eta etxebizitzaren edukitze-erregimenaren arabera (%)

(%)	GUZTIRA	Sexua		Adina		Edukitze-erregimena	
		Emakumeak	Gizonak	30 urtetik beherakoak	30-34 urtekoak	Jabetza	Alokairua
Igogailua	73,0	76,7	68,4	69,6	74,8	75,9	68,6
Trastelekua	43,5	45,4	41,3	31,7	49,9	57,9	27,9
Garajea	33,9	36,7	30,4	19,9	41,3	50,0	17,1

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

2019an 18-34 urteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren ezaugarriak aurreko urteetan adierazitakoekin alderatuz gero, ikusten da bigarren eskuko etxebizitzetan bizi diren gazteen kopuruak gora egin duela; beraz, gazteen etxebizitzaren batez besteko antzintasunak gora egin du, baina ez da aldaketa nabarmenik egon etxebizitzaren prestazioetan, ez eta horiei buruzko gogobetetasunean ere.

4.2. taula

18-34 urteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren ezaugarri fisikoen bilakaera

	2015	2017	2019
Bigarren eskuko etxebizitzak	%77,3	%76,1	%83,0
Batez besteko antzintasuna	35 urte	40 urte	42 urte
Pisuak	%95,0	%93,7	%95,4
Batez besteko azalera	77,7 m ²	76,7 m ²	77,4 m ²
Bi bainugela edo gehiago	*	%38,5	%37,8
Igogailua	%72,9	%71,9	%73,0
Trastelekua	%43,6	%50,1	%43,5
Garajea	%33,1	%39,4	%33,9
Gogobetetze maila altua edo nahiko altua	%85,3	%82,3	%84,8
* Ez dago urte horretako daturik			

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

5. EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA- PREMIA, LEHENTASUNAK ETA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO AUKERAK

Lehen ere ikusi dugunez, 30 urtetik beherako gazte gehienak ez daude emantzipatuta, eta 30-34 urtekoen taldean, lau pertsonatik batek emantzipatu gabe jarraitzen du (ikus 1.1 grafikoa).

Hala ere, kolektibo horren % 16,0 bere kabuz bizi izan da aurretik: % 12,6 ikasketengatik edo noizbehinkako lanengatik, eta % 3,4 emantzipatuta egon zelako.


Jarraian, 18-34 urteko gazte emantzipatu gabeen etxebizitza-premia eta emantzipazio-aurreikuspenak aztertuko ditugu.

5.1. Emantzipatu gabeko hiru gaztetik batek dio etxebizitza behar duela Euskadin (% 32,8), eta gehienek nahiago lukete beren udalerrian geratu

2019an, 18 eta 34 urte bitarteko emantzipatu gabeen % 32,8k diote etxebizitza behar dutela Euskadin. Etxebizitza-beharrak gora egiten du adinak gora egin ahala. Hala, 18 eta 24 urte bitartekoek % 19,5ek diote etxebizitza behar dutela Euskadin; ehuneko hori % 46,6koa da 25 eta 29 urte bitartekoek artean, eta 30 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen artean erdia baino gehiago dira (% 52,9) etxebizitza behar dutela diotenak.

5.1. grafikoa

2019an Euskadin etxebizitza behar zuten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen ehunekoa, adin-taldean arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")


Adinak gora egin ahala, etxebizitza behar dutela dioten ehunekoak ez ezik, etxebizitza-beharraren mailak ere gora egiten du. Hala, Euskadin etxebizitza behar duten emantzipatu gabeko pertsonen artean, premia handia edo dezentekoa dutela dioten ehunekoa % 29,9koa da 18 eta 24 urte bitartekoen artean, % 56,9koa 25 eta 29 urte bitartekoen artean, eta % 65,6koa 30 eta 34 urte bitartekoen artean.

Etxebizitza premian dauden emantzipatu gabeko pertsona gehien-gehienek adierazi dute premia horren arrazoia independizatzea dela (% 93,7). Gainera, % 48,2k esan du ezkondu edo bikotekidearekin bizi nahi duela, eta % 2,6k, berriz, etxebizitza bat behar duela bikotekidearekin hautsi duelako. Beste % 4,3k dio etxebizitza bat beharko lukeela, lana dela-eta lekuz aldatu behar duelako. Aipatu behar da bi arrazoi eman zitezkeela.

Lehentasunei dagokionez, gehienek udalerri berean (% 62,7) edo auzo berean (% 16,3) egotea nahiko lukete. % 14,8k eskualde berean egotea nahiago dute, eta % 4,2k soilik beste eskualde batean egotea.

5.2. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten 18-34 urteko gazte emantzipatu gabeen lehentasuna, etxebizitza horren kokapenari dagokionez (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

Auzo edo udalerri berean etxebizitza bat eskuratzeko nahiak nabarmen egin du gora aurreko urteekin alderatuta (% 65,7k nahiago zuten 2015ean eta % 68,4k 2017an; 2019an, berriz, % 79,0k).

Udalerrri berean jarraitzea nahiago duten arren, pertsona horien erdiak (% 50,8) udalerriz aldatzeko prest egongo lirateke, baldin eta, horrela, beren beharretara egokitutako ezaugarriak eta prezioa dituen etxebizitza bat eskuratu ahal izango balute (hala ere, % 40,3k ez luke udalez aldatuko, eta % 8,9k ez du argi).

5.2. 2019an Euskadin etxebizitza behar zuten gazte emantzipatu gabeen artean, erostea nahiago luketenak alokatzea nahiago luketenak bezainbeste dira


Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, beraien baliabide ekonomikoak kontuan izanik, alokatzearen alde egingo luketenak (% 36,8) etxebizitza erosiko luketenak (% 34,9) bezainbeste dira. % 13,9k nahiago du erosteko aukera duen etxebizitza bat alokatu, eta gainerako % 14,4ri aukera bat edo bestea berdin zaio.

Emakumeek gehiago aukeratzen dute erostea, eta gizon gazteen artean gehiago dira alokatzea aukeratuko luketenak.

Adinak gora egin ahala, gora egiten du erostea nahiago dutenen ehunekoak, eta behera, berriz, alokatzea nahiago dutenen ehunekoak.

5.3. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten 18-34 urteko gazte emantzipatu gabeen lehentasuna, etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez, sexuaren eta adinaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")


Nolanahi ere, etxebizitza jabetzan izatea nahiago dutenak ez dira alokairura ixten, eta horien erdiek (% 50,2) adierazi dute alokairua planteatuko luketela errentak eskuragarriagoak balira edo alokairuko etxebizitzak egoera hobean baleude, besteak beste.

2015eko datuekin alderatuz gero, ikus dezakegu 2019an gora egin duela erostearen alde egingo luketen gazteen ehunekoak (% 21,1etik % 34,9ra), eta nabarmen egin duela behera, aldiz, erosteko aukera ematen duen alokairuaren formularen alde egingo luketen ehunekoak (% 21,1etik % 13,9ra) bai eta edukitza-formula bat edo bestea berdin zaiela dioten ehunekoak

ere (% 22,8tik % 14,4ra). Bestalde, alokairuaren aldeko joera argia ia ez da aldatu (2015ean % 35,0 eta 2019an % 36,8).

5.4. grafikoa

2019an Euskadin etxebizitza behar duten 18-34 urteko gazte emantzipatu gabeen lehentasunaren bilakaera, etorkizuneko etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")


5.3. Euskadin etxebizitza behar duten gazte emantzipatu gabeen % 34,6k aurreikusten du bi urteko epean emantzipatuko dela; % 41,8k, aldiz, ez du uste lau urte baino lehen emantzipatuko denik

Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen heren batek uste du litekeena dela bi urteko epean emantzipatzea (% 34,6). % 23,6k uste dute lau urte baino lehen egin ahal izango dutela, baina % 41,8k uste dute ezin izango dutela lau urteko epean egin.

Adinak gora egin ahala (eta, horrekin batera, enplegu-tasak eta diru-sarrerak propioak), bi urteko epean etxebizitza bat eskuratzeko probabilitatea dutela uste dutenen ehunekoak ere gora egiten du.

5.5. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen artean, etxebizitza bat proposatutako epeetan eskuratzeko probabilitatea, adinaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019)

Izan ere, etxebizitza behar duten pertsona guztiek ezin dute etxebizitza eskuratu. Hasteko, Euskadin etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituztela dioten pertsonen ehunekoa % 65,5ekoa da, hau da, hirutik bi. Eta, hala ere, horrek ez du bermatzen etxebizitza bat eskuratu ahal izatea; izan ere, diru-sarrera propioak dituzten hiru pertsonatik batek (% 34,9) soilik uste du bere diru-sarrerak nahikoak eta egonkorak direla etxebizitza bat eskuratu ahal izateko.


Horrek esan nahi du Euskadin etxebizitza behar duten lau pertsonatik batek soilik dituela etxebizitza eskuratu ahal izateko adina diru-sarrera nahikoak eta egonkorak (% 22,8).

Zenbaki absolutuetan, 18 eta 34 urte bitarteko 73.000 gaztek diote Euskadin etxebizitza bat behar dutela; pertsona horien artean, gutxi gorabehera 48.000 gaztek dituzte diru-sarrera propioak, baina 17.000 gaztek dituzte, beren ustez, diru-sarrera nahikoak eta egonkorak, eta, beraz, emantzipatzeko benetako aukerak esku-hartze publikorik gabe.

Etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten pertsonak (diru-sarrera horiek nahikoak eta/edo egonkorak diren alde batera utzita) diote batez beste 483 euro erabil litzaketela alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko, erosketaren kasuan. % 2,5ek baino ez du adierazi hilean 900 euro baino gehiago bideratu litzakeela gastu horietara, eta gehienak 300 eurotik 600 eurora bitartean mugituko lirateke.

5.6. grafikoa

Euskadin etxebizitza-premia duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek beren gain har lezaketen etxebizitza erosteko edo alokatzeko hileko gastua (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

Zehazkiago, alokatzea aurreikusten dutenek, erosteko aukerarekin alokatzea aurreikusten dutenek edo berdin zaienek uste dute hilean gehienez 426 euro erabili ahal izango lituzketela alokairua ordaintzeko, batez beste. Pertsona horien % 9,8k soilik uste du hilean 600 euro baino gehiago erabil litzakeela alokairuaren errenta ordaintzeko. Prezio hori 2019ko lehen sei hilekoan kontratatutako alokairu-errenten batez bestekoaren azpitik dago, hau da, hilean 681 euro (Eusko Jaurlaritzaren erregistroan urteko lehen bi hiruhilekoetan gordailutako fidantzen batez besteko haztatua eginda, data horietan sinatutako alokairu-kontratu berriei dagokiena).

Bestalde, erostea aurreikusten dutenek, erosteko aukerarekin alokatzea aurreikusten dutenek edo berdin zaienek adierazten dute etxebizitza erosteko aurre egin ahal izango luketen gehieneko prezioa, batez beste, 162.000 eurokoa izango litzatekeela. % 36,5entzat prezio maximoa 150.000 eurotik behera geratuko litzateke, eta % 36,4rentzat prezio maximoa 150.000 eta 300.000 euro artekoa izango litzateke. Eta soilik % 2,4k ordain lezake 300.000 eurotik gorako prezioa. Laurdenek (% 24,6) ez dute erantzun.

2019an notario aurrean eskrituratu diren etxebizitza libreen batez besteko prezioa 211.434 eurokoa izan da, Notariotzaren Elkargo Nagusiaren datuen arabera. Zifra hori etxebizitza eta diru-sarrera propioak dituzten gazte emantzipatu gabeek (etxeko diru-sarrera guztiak kontuan hartuta) batez beste aurre egin diezaiokeela uste duten gehieneko prezioa baino ia 50.000 euro garestiagoa da.


Etorkizuneko etxebizitzarako aurreikusitako edukitza-erregimena edozein izanda ere, erosketagastuei edo alokairuaren hasierako gastuei aurre egiteko (fidantza, abalak, higiezin agentziarako ordainsariak, etab.), % 82,2k kreditu batekin finantzatzea pentsatzen du (erosiz

gero, kreditu hori, batez beste, etxebizitzaren prezio osoaren % 70 izango litzateke, gazteen kalkuluen arabera), % 63,6k aurrezki propioekin finantzatzea pentsatzen du, % 52,5ek senideen laguntzarekin eta % 14,4k laguntza publikoekin.

Aurreko zifra horietan bereziki nabarmendu daiteke etxebizitza behar duten gazte emantzipatu gabeen erdiak baino gehiagok, diru-sarrera propioak izan arren, familiaren laguntza ekonomikoa izatea espero dutela etorkizuneko etxebizitza finantzatu ahal izateko.

5.7. grafikoa

Euskadin etxebizitza-premia eta diru-sarrera propioak dituzten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen artean, etorkizuneko etxebizitza bat erosteko edo alokairuaren hasierako ordainketei aurre egiteko ondoko baliabideak erabiliko lituzketenen ehunekoak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

Aurreko urteekin alderatuta, ikusten da bi urteko epean emantzipatzeko aurreikuspenek zertxobait behera egin dutela 2015arekin alderatuta (% 38,1), baina nabarmen 2017ko aurreikuspenekin alderatuz gero (% 46,6).


Hori lotuta egon daiteke Euskadin etxebizitza behar duten gazte emantzipatu gabeen artean diru-sarrera propioak dituztenen ehunekoak behera egitearekin: 2015ean % 68,1ek diru-sarrera propioak zituen, 2017an % 71,4k eta 2019an % 65,5ek.

Eta etxebizitzaren alokairu-errenta edo hipoteka-kuota ordaintzeko hileko batez besteko gastu onargarria apur bat handitu bada ere (2017an 447 euro izatetik 2019an 483 euro izatera igaro da), etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten gazteen artean nabarmen egin du gora etxebizitzaren gastuak finantzatzeko kredituak, familia-laguntza eta laguntza publikoak erabiliko lituzketela adierazi dutenen ehunekoak, batez ere familia-laguntzari dagokionez, % 27,9tik % 52,5era igaro baita¹⁶.

¹⁶ 2015ean, diru-sarrera propio nahikoak eta egonkorak zituzten pertsonen bakarrik galdetu zitzaizkien hileko gastu onargarria eta etorkizuneko etxebizitza finantzatzeko moduak. Beraz, erantzunak ezin dira alderatu eta ez dira atal honetan sartu.

5.8. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten eta diru-sarrera propioak dituzten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen artean, etorkizuneko etxebizitza bat erosteko edo alokairuaren hasierako ordainketei aurre egiteko ondoko baliabideak erabiliko lituzketenen ehunekoen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")


5.4. Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen erdiek uste dute alokairu-erregimena errenta merkeagoekin sustatzea izango litzatekeela etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusia (% 51,4)

Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeek adierazi digute, beren iritziz, zein diren etxebizitzaren arazoa konpontzen lagunduko luketen bi neurri nagusiak, proposatutako zerrenda baten barruan.

Gazteek gehien babesten dituzten hiru neurriak hauexek dira: alokairu-erregimena sustatzea alokairu-errenta merkeagoekin, etxebizitza babestu gehiago egitea eta etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea. Hau da, gazteek alokairura eta erosketetara bideratutako irtenbideak bilatzen dituzte.

5.9. grafikoa

Etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusiak, Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen iritziz (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

Adinean gora egin ahala, gora egiten du erostera bideratutako neurriak babesten dituzten gazteen ehunekoak, hala nola etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea, eta behera egiten du alokatzera bideratutako neurriak defendatzen dituztenen ehunekoak, hala nola alokairu-erregimena sustatzea errenta merkeagoekin.

Errenta merkeagoekin alokairu-erregimena sustatzea eta etxebizitza babestu gehiago egitea Gipuzkoako gazteek Arabako edo Bizkaiko gazteek baino gehiago aipatu dituzten neurriak dira; etxebizitza erosteko laguntza gehiago ematea, ordea, Bizkaiko gazteek gainerakoek baino gehiago aipatu duten irtenbidea izan da.

Nolanahi ere, kolektibo horien guztien arabera, etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusia alokairu-erregimena errenta merkeagoekin sustatzea da.

5.1. taula

Etxebizitzaren arazoaren irtenbide nagusiak, Euskadin etxebizitza-premia duten 18 eta 34 urte bitarteko pertsona emantzipatu gabeen iritziz, sexuaren, adinaren eta lurralde historikoaren arabera (%)

(neurri bakoitza babestu duten gazteen %)	GUZTIRA	Sexua		Adina			Lurralde historikoa		
		Emakumeak	Gizonak	18-24 urte	25-29 urte	30-34 urte	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Alokairu-erregimena sustatu errenta merkeagoekin	51,4	49,7	52,8	55,7	52,4	44,0	49,1	46,3	58,8
Babestutako etxebizitza gehiago egin	34,9	32,2	37,3	33,6	37,2	32,6	30,4	32,6	39,4
Etxebizitza erosteko laguntza gehiago eman	32,2	34,7	29,9	26,3	31,2	41,5	31,3	35,7	27,9

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")


Gainera, Euskadin etxebizitza behar duten lau pertsona emantzipatu gabetik hiru guztiz edo nahiko ados daude eraikitzen diren etxebizitza babestu gehienak alokairu-erregimenekoak izatearekin (% 73,6).

Eta gehiengoa dira, halaber, Euskadin etxebizitza-premia duten pertsona emantzipatu gabeen artean, etxebizitza hutsei kanon bat edo zerga bat jartzearekin erabat ados edo nahiko ados daudenak (% 62,1).

30 urtetik beherakoek 30 eta 34 urte bitartekoek baino adostasun handiagoa erakusten dute bi neurri horiekin.

5.10. grafikoa

Euskadin etxebizitza behar duten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeen arteko adostasun maila, etxebizitzarekin lotutako hainbat neurri dagokienez, adinaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

6. EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZA PUBLIKOAK

Emantzipaziorako laguntza publikoen artean, bi bereiz ditzakegu, nagusiki: sustapen publikoko etxebizitzak eskuratzea, jabetzan edo alokairuan, merkatukoa baino prezio txikiagoan, edo zuzeneko laguntza ekonomikoak jasotzea, etxebizitzak merkatu librean eragiten duen gastuari aurre egin ahal izateko.

Jarraian, baliabide horien bidez gazteek etxebizitza eskuratzeko duten aukera aztertuko dugu.

6.1. Etxebizitza babestua

Jarraian, zifra batzuk aurkeztuko ditugu, Euskadiko etxebizitza babestuen parkearen dimentsioari eta gazteek parke horretan duten sarbideari buruzkoak.

6.1.1. Azken urteotan, Eusko Jaurlaritza alokairuko etxebizitza babestuak sustatzen ari da

Euskadiko etxebizitza babestuen parkeak 76.452 etxebizitza zituen 2019an. Horietatik, 23.594 babestutako alokairu-parkeari zegozkion; hau da, babestutako etxebizitzaren parkearen % 30,9 alokairurako etxebizitzak dira.

Etxebizitza babestu guztien artean, alokairuko etxebizitzaren ehunekoa 2015ean % 25,2 izatetik 2019an % 30,9 izatera igo da. Horren arrazoia izan da alokairu babestuko etxebizitzaren kopuruak gora egin duela, eta etxebizitza babestuen parke orokorrak ia 4.000 etxebizitza gutxiago dituela 2019an.

6.1. taula

Alokairuko etxebizitza babestuen parkearen dimentsionamendua Euskadin

Urtea	Babestutako etxebizitzaren parkea (absolutuak)	Alokairuko etxebizitza babestuen parkea (absolutuak)	Alokairuko etxebizitzaren pisua, babestutako etxebizitza guztiekiko (%)
2015	80110	20215	25,23
2016	79039	20510	25,95
2017	77242	20993	27,18
2018	76903	22704	29,52
2019	76452	23594	30,86

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (Euskadiko alokairu-politikaren ebaluazio txostena. 2020ko iraila)

Izan ere, Eusko Legebiltzarraren Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legeak alokairu babestuaren aldeko apustu garbia egiten du. 7.4 artikuluan honako hau ezartzen da: "Eusko Jaurlaritzak eta lurralde-izaerako administrazio publikoek erabilgarri dauden etxebizitza-baliabideak, lehenetasunez, egoera txarrean dauden kolektiboentzako alokairuko etxebizitzak sustatzera bideratuko dituzte. Lehenetasun horrek esan nahi du etxebizitza-baliabideen % 80, birgaitzera

bideratutako baliabideak salbuetsita, alokatze-politiketara bideratuko dela eta babes publikoko araubidean eraikitakoaren bolumena ez dela ehuneko hori baino txikiagoa izango".

Eta azken xedapenetako laugarrenean, 7.4 artikuluan aurreikusitako etxebizitza-politikak aplikatzeko epeari buruzkoan, honako hau gehitzen du: "*Lege honetako 7.4 artikuluan aipatzen diren etxebizitza-politiketan, non etxebizitza arloko baliabide publikoen % 80, birgaitzera bideratutako baliabideak salbuetsita, alokatzera bideratuko baita, portzentaje hori % 100eraino handituko da lege hau argitaratu eta hurrengo bost urtean*"¹⁷.

Horrek ez du esan nahi 2020tik aurrera ez denik salmentako babes publikoko etxebizitza gehiago eraikiko, hori posible baita ekimen pribatu eta sozialen aldetik, betiere baliabide publikoak kontsumitzen ez badira.

Beste alde batetik, 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren helburua ere bada alokairu babestua sustatzea, eta bere misioan argi uzten du alokairuko etxebizitzaren parke publikoaren hazkundera sustatzea dela, gai izan dadin etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko eta zailtasun handienak dituzten kolektiboen beharrei erantzuteko, nahasketaren bidezko gizarte-kohesioa, arreta berezia jarritzaz gazteen emantzipazioari¹⁸.

Alokairuko etxebizitzaren parkea handitzeko, batetik, alokairuko etxebizitza publikoen sustapen berriak eraikitzen dira, eta, bestetik, etxebizitza partikular hutsak alokairu babestuko etxebizitzaren poltsan sartzea edo errentarien eta errentatzaileen artean bitartekari-lanak egitea bilatzen duten programak daude, etxebizitza pribatuak merkatu librekoak baino prezio eskuragarriagoetan alokatzeko.

Alokairu-erregimeneko etxebizitza babestu berrien eraikuntzak bilakaera oso positiboa izan du 2015 eta 2019 artean, urte bakoitzean hasitako etxebizitzaren kopuruari erreparatuz gero. 2019an alokairu babesturako 735 etxebizitza berri eraikitzen hasi ziren, hau da, urte horretan etxebizitza babestuen eraikin berri guztien % 34,1; beraz, 2019an hasitako hiru etxebizitza babestuetatik bat alokairurako bideratu da.

¹⁷ Euskal Herriko Adizkari Ofiziala (2015): 3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena [linean] Hemen eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015002853>

[Kontsulta: 2021/01/13]

¹⁸ Eusko Jaurlaritzak: Etxebizitzaren Gida Plana 2018-2020 [linean] Hemen eskuragarri:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/2018_20_0/eu_def/adjuntos/2018_2020_AEP.pdf

(152. or.) [Kontsulta: 2021/01/13]

6.2. taula

Alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen eraikuntzaren, eta alokairuak urte bakoitzean eraikitzen hasitako etxebizitza babestu guztiekiko duen pisuaren bilakaera Euskadin

Urtea	Hasitako alokairuko etxebizitzak (absolutuak)	Amaitutako alokairuko etxebizitzak (absolutuak)	Alokairuan hasitakoak, urte horretan eraikitzen hasitako etxebizitza babestu guztiekiko (%)
2015	185	124	19,8
2016	364	346	33,1
2017	517	102	38,5
2018	664	229	35,3
2019	735	224	34,1

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (*Etxebizitza-politiken ebaluazio integralaren txostena. 2019*)

Eusko Jaurlaritzak alokairuan sustatzen dituen etxebizitza gehienak araubide bereziko babes ofizialeko etxebizitzak dira, hau da, etxebizitza sozialak. Udalek batez ere erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatu dituzte. Sustatzaile pribatuek ere bigarren aukera horren alde egin dute. Etxebizitza horien urteko gehieneko errenta familia-unitate errentariaren urteko diru-sarreraren eta etxebizitza horren prezioaren arabera finkatzen da.¹⁹ Bere jabetzako etxebizitzetan, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du errentako familia-unitateen diru-sarreraren % 30etik gorako errentarik ez kobratzeko.

Gainera, 2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planak zuzkidura-bizitokiak sustatzearen aldeko apustua egiten du, etxebizitza-premien konponbide gisa, batez ere gazteen eta adinekoen kasuan. Zuzkidura-bizitokiak titulartasun publikoko bizitegi-eraikinak dira, etxebizitza babestuaren arloan aurreikusitako laguntzek lagundutakoak eta erabiltzaileek aldi baterako okupatutakoak, zuzenbidean onartutako edozein formularen bidez (errentamendua, biztantez-eskubidea, usufruktua...), eta, zuzkidura-izaera dutenez, ezin dira inola ere saldu. 2019an mota horretako 217 bizitoki eraikitzen hasi ziren eta 58 amaitu ziren.

¹⁹ Etxebizitzaren prezioa finkatzeko, etxebizitzaren azalera erabilgarria bider metro koadroari dagokion prezioa egin behar da, etxebizitza motaren eta etxebizitza kokatuta dagoen udalerriaren arabera.

6.3. taula

Zuzkidura-bizitokien eraikuntzaren bilakaera Euskadin (absolutuak)

Urtea	Hasitako zuzkidura-bizitokiak	Amaitutako zuzkidura-bizitokiak
2015	0	0
2016	154	133
2017	160	0
2018	305	60
2019	217	58

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (Etxebizitza-politiken ebaluazio integralaren txostena. 2019)

Bestalde, etxebizitza pribatuen mobilizazioa alokairu babestura ere handitu da Bizigune²⁰ edo ASAP²¹ programen bidez.

Bizigune programaren helburua da hutsik dauden etxebizitzak erakartzea, alokairu babestuaren bidez merkaturatzeko. Etxebizitza huts baten jabeak ALOKABIDEn (Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa) esku jartzen du, usufruktu-kontratu baten bidez, ezarritako berme batzuen truke. Era berean, Alokabidek Etxebiden, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan, izena emanda dagoen eskatzaile bati esleituko dio etxebizitza hori, eta hark bere diru-sarreraren arabera alokairu-errenta proportzionala ordainduko dio Alokabideri.

2019. urtearen amaieran, Bizigune programak alokairu babestura bideratutako partikularrenak ziren 6.004 etxebizitza zituen. Hori zen 2015-2019 bosturtekoaren zifrarik altuena. Bestalde, 2019an, Bizigune programako errentariek ordaindutako hileko batez besteko errenta 236 eurokoa zen. Bizigune programan parte hartzen duten etxebizitzaren jabeek, aldiz, 500,8 euroko batez besteko errenta jaso dute. Errentariek ordaindutako prezioaren eta jabeek jasotakoaren arteko aldea Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du; beraz, Eusko Jaurlaritzak, 2019an, hilean 265 euro ordaindu zituen, batez beste, programa honen bidez kontratatutako alokairu bakoitzeko.

²⁰ Bizigune programa abenduaren 23ko 466/2013 Dekretuak arautzen du [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2013005596> [Kontsulta: 2021/01/13]

²¹ Merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programa, ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa), irailaren 17ko 144/2019 Dekretuak arautzen du [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004423> [Kontsulta: 2021/01/13]

6.4. taula

Bizigune programaren etxebizitza-parkearen, maizterrek ordaindutako hileko batez besteko errenten eta etxebizitza horien jabeek jasotako hileko batez besteko errenten bilakaera

Urtea	Bizigune programaren etxebizitza-parkea (absolutuak)	Maizterrek ordaindutako hileko errenta (euro)	Jabeek hilean jasotako batez besteko errenta (euro)
2015	4589	261,4	527,1
2016	4499	254,5	499,5
2017	4639	223,3	480,3
2018	5325	242,9	488,4
2019	6004	236,0	500,8

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (Etxebizitza-politiken ebaluazio integralaren txostena. 2019)

Bestalde, merkatu libreko etxebizitzaren alokairurako bitartekaritza-programaren (ASAP, Alokairu segurua, Arrazoizko Prezioa) helburua da titulartasun pribatuko etxebizitzak errentamendu-merkatuan sartzea erraztea, errentarientzat eskuragarri den prezioan. Horretarako, aseguru-poliza moduko berme batzuk ezartzen dira jabeentzat, errenta ez ordaintzeak, balizko kalteak eta laguntza juridikoa estaltzeko, errentek Eusko Jaurlaritzak ezarritako gehieneko zenbateko batzuk ez gainditzearen truke. Gehieneko alokairu-errenta horiek etxebizitzaren kokapen geografikoak baldintzatzen ditu.

2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planak ASAP programa berrikusteko eta birformulatzeko beharra nabarmendu zuen, besteak beste, programan sartu beharreko etxebizitzak erakartzeko lankidetzak publiko-pribatua areagotzeko eta pisu turistikoak programa horretara erakartzeko.

2020an, ASAP programari lotutako etxebizitza-parkeak 278 etxebizitza zituen (2020rako helburu gisa ezarritako 800 etxebizitzetatik urrun), eta 223 errentamendu-kontratu zeuden indarrean. Programako maizterrek 2020an ordaintzen zuten batez besteko errenta hilean 503,9 eurokoa zen.

6.5. taula

ASAP programako etxebizitza-parkearen, indarrean dauden alokairu-kontratuen eta maizterrek ordaindutako hileko batez besteko errenten bilakaera²²

Urtea	Programaren etxebizitza-parke osoa (absolutuak)	Indarrean dauden kontratuak (absolutuak)	Maizterren ordaindutako batez besteko errenta (euro)
2015	233	145	Ez dago daturik
2016	254	221	Ez dago daturik
2017	260	209	Ez dago daturik
2018	263	212	495,3
2019	271	223	498,6
2020*	278	223	503,9

* 2020ko iraileko datuak

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (ASAP programaren ebaluazio txostena)

6.4 eta 6.5 tauletan ikusi dugunez, Bizigune eta ASAP programetako maizterrek ordaintzen dituzten alokairu-errentak alokairu libreko batez besteko errentaren azpitik daude. EMaren arabera, errenta hori 681 eurokoa (batez beste) zen 2019ko lehen seihilekoan sinatutako alokairu-kontratu berrietarako.

6.1.2. Etxebizitza babestuan emantzipatutako gazteen ehunekoa askoz handiagoa da Araban gainerako lurralde historikoetan baino

2019an, 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatuen % 13,6k adierazi zuten etxebizitza babestu batean edo sustapen publikoko etxebizitza batean bizi zirela: % 9,3k jabetzako etxebizitza batean eta % 4,2k alokairuko etxebizitza babestu batean.

Etxebizitza babestuan (jabetzan edo alokairuan) bizi ziren gazte emantzipatuen ehunekoa askoz handiagoa zen Araban (% 29,7) Bizkaian (% 10,7) eta Gipuzkoan (% 10,5) baino. Hori ez da harritzekoa, kontuan hartuta 2018an soilik Araban eskrituratutako etxebizitzaren % 17 babestuak zirela (2012an guztizkoaren erdia baino gehiago izatera iritsi ziren); Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, kopuruak askoz txikiagoak ziren (% 4,4 eta % 4,8, hurrenez hurren, 2018an)²³.


²² Etxebizitzaren Behatokia: ASAP programaren ebaluazio txostena. 2020ko abendua [linean] Hemen eskuragarri:

https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_asap20/eu_ovv_admi/adjuntos/ASAP_20_eu.pdf [Kontsulta: 2021/01/14]

²³ Iturria: Notariotzaren Kontseilu Nagusia.

6.1. grafikoa

Etxebizitza babestu batean bizi diren 18-34 urteko gazte emantzipatuak, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia ("Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019")

Datu horiek, nolanahi ere, ez dute adierazten ez etxebizitza publikoa eskuratzeko urtea, ez etxebizitza publikoa esleitu zaien gazteen ehunekoa (izan ere, adjudikazioduna etxeko kideetako bat izan daiteke, baina ez guztiak). Era berean, ez dute adierazten zein etxebizitza babestu motatan bizi den (jabetzan edo alokairuan den alde batera utzita), ezta etxebizitzaren sustatzailea edo zein programatik lortu den ere.

6.1.3. 2020an, Euskadin esleitutako lau etxebizitza publikoetatik bat 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat izan da

Zehazkiago, 2020ko etxebizitza publikoen esleipenei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu Euskadin 12.646 etxebizitza esleitu direla, eta horietatik 3.275 (guztien % 25,9) 18 eta 35 urte bitarteko gazteentzat izan zirela.

18-35 urte bitarteko gazteei esleitutako etxebizitza publikoen kopurua bikoiztu egin zen 2017tik 2018ra, datu absolutuetan; 2019an jaitsi zen eta 2020an mantendu egin da.

Ehunekotan, aldiz, 2020an behera egin du gazteei esleitutako etxebizitza publikoen ehunekoak, oro har etxebizitza publiko gehiago esleitu direlako.

6.6. taula

Etxebizitza publikoaren esleipenaren bilakaera Euskadin

	2016	2017	2018	2019	2020
Euskadin esleitutako etxebizitza publiko guztiak (absolutuak)	8.629	9.602	12.300	10.634	12.646
18-35 urteko gazteei esleitutako etxebizitza publikoak (absolutuak)	2.191	2.124	4.262	3.561	3.275
18-35 urteko gazteei esleitutako etxebizitzaren ehunekoa, urte bakoitzean esleitutako etxebizitza publiko guztiekiko (%)	25,4	22,1	34,7	33,5	25,9

Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuetan oinarrituta

2020an gazteei esleitutako 3.275 etxebizitza publikoetatik dezente gehiago izan dira alokairu-erregimenean esleitu direnak (2.358) erosketa-erregimenean esleitu direnak baino (917). Horrek esan nahi du 2020an gazteei esleitutako etxebizitza publikoen % 72,0 alokairu-erregimenean entregatu direla.

Alokairu-erregimenean gazteei esleitutako etxebizitzaren kasuan, gehienak (1.466) Bizigune programaren bidez alokairura mobilizatutako etxebizitzak izan dira, 63 ASAP programaren bidez, eta 519 zuzkidura-bizitokiak izan dira.

6.7. taula

18-35 urteko gazteei 2020an esleitutako etxebizitza publikoak (absolutuak)

Programa	Esleitutako etxebizitza guztiak	Erosketa-erregimenean	Alokairu-erregimenean
Kontratuei oniritzia ematea*	1.227	917	310
Bizigune	1.466		1.466
ASAP	63		63
Zuzkidura-bizitokiak	519		519
Guztira	3.275	917	2.358

* Oniritzia ematearen xedea da egiaztatzea ezen babes publikoko kalifikazioa duten sustapen publikoko etxebizitzak zein haien eranskinak eta lokal edo higiezinak –zuzenbidean onargarri den edozein tituluren bidez– lehenengo edo ondorengo aldietan eskualdatzeko edo erabiltzen lagatzeko egintzak eta kontratuak legearen arabera direla, honako alderdi hauei erreparatu: batetik, eskuratzailerak edo okupatzaileak betetzen dituztela eskuratu edo okupatzeko baldintza orokorrak eta, bestetik, kontratuek badituztela nahitaez ezarri beharreko klausulak eta zehazten dutela kalifikazioaren iraupena eta modalitatea.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuetan oinarrituta

Bizigune edo ASAP programen barruan esleitutako etxebizitzaren kopuruak aldaketak izan ditu urte hauetan. Zuzkidura-bizitokiek, berriz, goranzko joera jarraitua izan dute, 2016an 47 izatetik 2020an 519 izatera igaro baitira.

6.8. taula

18-35 urteko gazteei esleitutako etxebizitza publikoaren bilakaera, Bizigune edo ASAP programaren barruko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak kontuan hartuta (absolutuak)

	2016	2017	2018	2019	2020
Bizigune bidez	1125	965	919	685	1466
ASAP bidez	65	54	164	124	63
Zuzkidura-bizitokiak	47	160	459	466	519

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuetan oinarrituta

6.1.4. Etxebiden izena ematen duten gazte gehienek alokairuko etxebizitza eskatzen dute

Etxebide etxebizitza-zerbitzu publikoa da. Euskadin babes publikoko etxebizitzaren arloan dagoen eskaera eguneratua atzemateaz arduratzen da, etxebizitzaren eta lurzorua arloko merkatuetan esku hartzeko plan publikoen plangintzari eta programazioari ekiteko behar den informazio estrategikoa emateko, une bakoitzean dauden gizarte-beharrak konpontzeko. Eta, gainera, bere gain hartzen du sustapen publikoko etxebizitza-multzo zabal baten esleipenaren kudeaketa.

Etxebiden etxebizitza-eskatzailerik gisa izena emateko, beharrezkoa da adinez nagusia edo adingabe emantzipatua izatea, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea, eskuratu nahi den etxebizitza-motaren arabera gutxieneko eta gehieneko diru-sarrera jakin batzuk izatea, eta etxebizitza jabetzan ez izatea edo baldintza espezifikoak izatea (etxe horrek gutxieneko bizigarritasun-baldintzak ez betetzea, etxean pertsona ezgaitua izatea eta horrelako pertsonentzako sarbiderik ez izatea etxean, etxebizitza beste ezkontideari esleitu izana banantze-prozesu batean, etab.²⁴). Beraz, pertsona emantzipatuek izena eman dezakete, betiere deskribatutako baldintzak betetzen badituzte.

Eskaera indibiduala edo bizikidetza-unitatearen arabera izan daiteke. 2013az geroztik, eskaera egitean adierazi behar da etxebizitza jabetzan edo alokairuan aukeratzen den, eta eskaera bi urtean behin berriro behar da.

2020ko hirugarren hiruhilekoan 76.792 etxebizitza-eskaerako espediente daude erregistratuta Etxebiden eta horietako 20.772 espedientetan titularra 30 urtetik beherako gazte bat da. Horrek esan nahi du Etxebideko espediente guztien % 27,0, 30 urtetik beherako gazteei dagokiela.


²⁴ Eskatzailerik moduan izena emateko baldintzak edo betekizunak hobeto ezagutu nahi izanez gero, Etxebiden webgunean kontsulta daitezke, "Etxebizitza eskatu" atalean, hain zuzen ere [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-contgen/eu/contenidos/informacion/requisitos_reg_etxeb/eu_def/index.shtml [Kontsulta: 2021/01/15]

Eskatzaile gazteen 20.772 espedienteetatik 12.960k alokairuko etxebizitza eskatzen dute, eta 7.812k jabetzako etxebizitza. Hau da, gazte gehienek alokairuko etxebizitzak eskatzen dituzte (% 62,4).

Datuen bilakaerak erakusten digu Etxebiden erregistratutako eskatzaile gazteen espediente-kopuruak gora egin duela, eta bi aukerak, erosketa eta alokairua, hazi egin direla, kopuru absolututan.

6.2. grafikoa

Etxebiden erregistratutako etxebizitza-eskaeren espedienteen kopuruaren bilakaera, titularrak 30 urtetik beherako gazteak direnean, eskatutako edukitza-erregimenaren arabera (absolutuak)



* 2020ko datuak urteko hirugarren hiruhilekoari dagozkio.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuetan oinarrituta


Hala ere, erosketa-eskaeren hazkunde-erritmoa handiagoa da alokairu-eskariena baino; beraz, alokairuko etxebizitzaren eskaeren ehunekoa zertxobait jaitsi da 2016tik 2020ra. Eta gauza bera gertatu da adin guztietako pertsonen eskaeretan.

Etxebizitza alokairuan eskatzen duten gazteen ehunekoaren jaitsiera hori bat dator, nolabait, Euskadin etxebizitza behar duten gazte emantzipatu gabeek adierazten zuten erosteko lehentasunaren igoerarekin (ikus 5.2 atala)²⁵.

²⁵ Datu batzuk emantzipatutako nahiz emantzipatu gabeko pertsonen erregistroetatik datoz, eta beste batzuk inkesta batetik datoz. Inkesta horretan, Euskadin etxebizitza-premia dutela dioten emantzipatu gabeko pertsonen baino ez zaie egin galdera. Datuak, beraz, ezin dira zuzenean alderatu, baina joera bera erakusten digute: alokairurako lehentasuna moteldu egin dela eta erosteko gogoia, aldiz, handitzen ari dela.

6.3. grafikoa

Alokairuko etxebizitzaren eskaeren ehunekoaren bilakaera. 30 urtetik beherako gazteen eta adin guztietako eskatzaileen eskaeren arteko alderaketa (%)



* 2020ko datuak urteko hirugarren hiruhilekoari dagozkio.

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuetan oinarrituta

Bestalde, 2020ko datuei erreparatuz, Etxebiden etxebizitza eskatzen duten emakume gazte gehiago daude gizon gazte baino. 30 urtetik beherakoen 20.772 espedienteetatik, 10.040 espedientetan titularrak emakumeak dira, 8.116 espedientetan gizonak eta 2.616 espedientetan gizonak eta emakumeak.

Zenbakiak ia ez dute sexuaren arabeko alderik erakusten etxebizitza erosteko eskatzen dutenen kasuan, baina alokairuaren kasuan emakume gazteen eskaera gehiago dago gizon gazteena baino.

6.9. taula

30 urtetik beherako titularrak dituzten 2020ko hirugarren hiruhilekoan indarrean dauden etxebizitza-eskaeren espedienteen banaketa, sexuaren eta eskatutako edukitza-erregimenaren arabera (absolutuak)

(datu absolutuak)	Guztira	Titularrak, gizonak	Titularrak emakumeak	Bi sexuko titularrak
Erosketa eskatzen dute	7812	3347	3724	741
Alokairua eskatzen dute	12960	4769	6316	1875
Guztira	20772	8116	10040	2616

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Behatokiak emandako datuetan oinarrituta

6.2. Laguntza zuzenak eta Gaztelagun programa abian jartzea

Laguntza zuzenak dira Eusko Jaurlaritzak merkatu librean etxebizitza bat erosi edo alokatu nahi duten pertsonen ematen dizkien laguntza ekonomikoak (edo fiskalak), ezarritako baldintza batzuk betetzen dituztenak (pertsonekin zein etxebizitzekin lotutako baldintzak).

Hala, alde batetik, etxebizitza erosteari dagokionez, itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak ematen dira etxebizitza libre erabilia erosteko²⁶. Finantza-laguntzak ere badaude, mailegu kualifikatu gisa, jabetza osoan nahiz azalera-eskubidean eraikitako babes publikoko etxebizitzak erosteko²⁷.

Bestalde, 2019an alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzak hauek izan dira:

- Etxebizitza Gastuetarako Prestazio Osagarria (EGPO), Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) lotutako laguntza. Aldizkako prestazio ekonomikoa da, eta ohiko etxebizitzaren edo bizitokiaren alokairu-gastuak ordaintzera bideratuta dago, edozein modalitatetan: errentamendua, azpierrementamendua, baterako errentamendua, ostatua eta logelen alokairua.
- Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE), etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortu ondoren; horrek lehentasuna ematen dio etxebizitza esleitzeari eta/edo prestazioa ordaintzeari.
- Gizarte-Larrialdietarako Laguntzak (GLL).
- Gaztelagun programa, berariaz gazteei zuzendua.

Jarraian, Gaztelagun programa aztertuko dugu.

2018-2020 Etxebizitzaren Gida Planaren 5. ardatzaren helburuetako bat da gazteen beharretara egokitutako ereduak ezartzea, eta, gazteen emantzipazioa bultzatzeko, Gaztelagun Programa jarri da abian. Programa 2019ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean, eta gazteen emantzipazioa erraztea du helburu, ohiko etxebizitza iraunkorra alokatzeko hileko errentaren zati bat ordaintzeko zuzeneko laguntzak emanez.²⁸

²⁶ Etxebizitza libre erabilia erosteko laguntzen betekizunak ondoko dokumentuan daude azalduta: https://www.euskadi.eus/contenidos/ayuda_subvencion/ayuda_vivienda_libre_usada/eu_def/adjuntos/manual_vlu_eu.pdf [Kontsulta: 2021/01/15]

²⁷ Babes ofizialeko etxebizitzak erosteko laguntzen betekizunak ondoko dokumentuan daude azalduta: https://www.euskadi.eus/contenidos/autorizacion/medidas_financieras_compra_vpp/eu_def/adjuntos/files_vpo1_e.pdf [Kontsulta: 2021/01/15]

²⁸ Gaztelagun programa arautzen duten aginduak hauek dira: 2018ko abenduaren 18koa [linean] <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806381e.shtml> eta 2019ko abenduaren 10ekoa [linean] https://www.alokabide.euskadi.eus/contenidos/informacion/gaztelagun_index/eu_def/adjuntos/ModificacionOrden17122019-eus.pdf Azken honek aldatu egin ditu aurrekoaren hainbat gauza. [Kontsultak: 2021/01/15]

Laguntza emateko, eskatzaileek baldintza hauek bete behar dituzte (laburbilduta):

- 18 eta 35 urte bitartean izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) benetan eta etenik gabe urtebetez bizi izana egiaztatzea.
- Inongo etxebizitzaren titularra ez izatea edo hura ezin dela erabili egiaztatzea.
- EAEn kokatuta dagoen eta ohiko bizilekua den etxebizitza libre baten errentamendu-kontratu baten titularra izatea.
- Errentatzailearekin familia-loturarik ez izatea.
- Errenta banku-transferentzia bidez ordaintzea.
- Familia-unitatearen arabera ezarritako gutxienerako eta gehieneko diru-sarrerak izatea.

Gainera, etxebizitzak Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar du, eta etxebizitzaren hileko errentak ez du zenbateko jakin bat baino handiagoa izan behar, kokapen geografikoaren arabera. Laguntzaren gehieneko iraupena hiru urtekoa da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus Gaztelagun programaren barruan etxebizitza alokatzeko laguntzak arautzen eta deitzen dituen agindua.²⁹.

Programa 2019an abian jarri zenetik 2020ko abendura arte, guztira 3.666 eskaera erregistratu dira laguntza hori jasotzeko; eskaera erdiak Bizkaian jaso dira (% 50), beste % 31 Gipuzkoan eta gainerako % 19 Araban.


2020ko abenduko datuen arabera, 1620 diru-laguntza aktibo daude, hau da, eskaera guztien % 44,2. Aktibo dauden eskaera horien % 49,1 Bizkaiko gazteei dagozkie, % 30,4 Gipuzkoako gazteei eta % 20,5 Arabako gazteei. Zifra horiek erakusten dute emandako laguntzak lurralde bakoitzean erregistratutako eskaeren proportzionala da, eta bat dator, gutxi gorabehera, populazio gaztearen banaketa geografikoarekin.

Kontuan hartzen badugu, zifra absolutuetan, Euskadin etxebizitza behar dutela dioten 18 eta 34 urte bitarteko gazte emantzipatu gabeak 73.000 inguru direla (5. kapituluaren agerian utzi dugun bezala) eta Gaztelagun programaren bidez aktibo dauden laguntzak 1.620 direla, ondoriozta dezakegu programa horrek 2019tik 2020ra bitartean Euskadin etxebizitza-premia duten gazte emantzipatu gabeen % 2,2ri, gutxienez, lagundu diela emantzipatzen.

²⁹ *Ibidem*.

6.4. grafikoa

2020ko abenduan aktibo dauden Gaztelagun programaren laguntzen banaketa, lurralde historikoaren arabera (absolutuak)



Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (Gaztelagun Programaren Ebaluazioa. 2020)

2020ko abenduan aktibo dauden laguntzak aztertuz gero, zehaztu ditzakegu jasotzaileen ezaugarri soziodemografikoak eta ekonomikoak:


- Hiru onuradunetik bi emakumeak dira (% 62,5).
- Gehien-gehienak 25 eta 35 urte bitartekoak dira (% 91,7). Eta onuradunen batez besteko adina 29,1 urtekoa da.
- Gehienak bakarrik bizi diren gazteak dira (% 80,9).
- Onuradunen ia erdiek (% 47,2) urtean 10.000 eta 15.000 euro bitarteko diru-sarrerak dituzte. % 37,9k 10.000 euro baino gutxiago dituzte urtean eta % 14,9k 15.000 euro baino gehiago.

Gainera, aktibo dauden eskaeren ia erdiak (% 48,2) etxebizitza partekatuetan (“baterako errentamendua”) bizi diren gazteei dagozkie.

Diru-laguntzen zenbateko ekonomikoari dagokionez, onuradunek batez beste 219 euroko diru-laguntza jaso dute hilean, pertsonako. Alde horretatik, ez dago alde handirik sexuaren, adinaren edo lurralde historikoaren arabera.

6.5. grafikoa

2020ko abenduan Gaztelagun programaren laguntzak jasotzen dituzten onuradunen ezaugarri soziodemografikoak eta ekonomikoak (%)



Iturria: Etxebizitzaren Behatokia (Gaztelagun Programaren Ebaluazioa. 2020)

7. TXOSTENEAN ERABILITAKO ADIERAZLE NAGUSIEN LABURPEN-TAULA

ADIERAZLEA	AZKEN DATUA	URTEA
EMANTZIPATUTAKO GAZTEEN KOPURUA ETA HORREN ONDORIO DEMOGRAFIKOAK		
18-34 urteko gazteen emantzipazio-tasa	% 38,5	2019
Emantzipatuta dauden 18-24 urteko gazteen ehunekoa	% 7,4	2019
Emantzipatuta dauden 25-29 urteko gazteen ehunekoa	% 42,5	2019
Emantzipatuta dauden 30-34 urteko gazteen ehunekoa	% 73,2	2019
Emantzipatzeko batez besteko adina	30,2 urte	2019
Emantzipatu nahi baina urtebeteko epean ezin izango dutela uste duten 15-29 urteko gazteen ehunekoa	% 40,5	2020
Lehen seme-alaba izatean amaren batez besteko adina	31,9 urte	2019
Euskadiko biztanleriaren batez besteko adina	46,7 urte	2019
GAZTEEN EKONOMIA- ETA LAN-EGOERA		
Hirugarren mailako titulazioa (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) duten 30-34 urteko biztanleen ehunekoa	% 48,0	2019
Batez ere beren gurasoen edo familiako beste batzuen diru-sarreretatik bizi diren 16-29 urteko gazteak	% 56,6	2020
Hilean 600 euro baino gehiago duten 16-29 urteko gazteak	% 31,3	2020
16-29 urteko gazteen enplegu-tasa	% 37,0	2020 (IV.hiruhilekoa)
16-29 urteko gazteen langabezia-tasa	% 22,3	2020 (IV.hiruhilekoa)
16-29 urteko gazte okupatuen lanaldi partzialeko lana	% 31,8	2019
16-29 urteko gazte soldatadunen behin-behinekotasun tasa	% 64,3	2019
18-29 urteko gazte soldatadunen batez besteko soldata	1.199 €	2019

Urtebeteko epean lana gal dezaketela edo beren lan-baldintzak oker daitezkeela uste duten 16-29 urteko gazte landunen ehunekoa	% 47,8	2020
Urtebeteko epean lana aurkituko dutela uste duten 15-29 urteko gazte langabeen ehunekoa	% 64,0	2020
ETXEBIZITZAREN GARESTITASUNA EUSKADIN		
Merkatu libreko etxebizitzaren salerosketen batez besteko prezioa, notario aurrean eskrituratutako prezioen arabera	211.434 €	2019
Merkatu libreko alokairu-errenten batez besteko prezioa, Eusko Jaurlaritzako fidantza-gordailuen arabera	681 €	2019ko I eta II hiruhilekak (batez besteko haztatua)
Merkatu librean batez besteko prezioa duen etxebizitza bat bere kabuz erosteko, 18-34 urteko soldatapeko batek hilean hipotekaren kuota ordaintzeko bideratu beharko lukeen soldataren ehunekoa (batez besteko soldata izanik)	% 55,1	2019
Merkatu librean batez besteko prezioa duen etxebizitza bat bere kabuz alokatzeko, 18-34 urteko soldatapeko batek hilean errenta ordaintzeko bideratu beharko lukeen soldataren ehunekoa (batez besteko soldata izanik)	% 50,4	2019ko I eta II hiruhilekak (batez besteko haztatua)
Soldataren beharrezko igoera, 18-34 urte bitarteko soldatapeko pertsona batek etxebizitza bat bere kabuz erosteko aukera izan dezan, hileko hipoteka-kuota ordaintzeko soldataren % 30 baino gehiago erabili behar izan gabe.	% 83,7	2019
Soldataren beharrezko igoera, 18-34 urte bitarteko soldatapeko pertsona batek etxebizitza bat bere kabuz alokatu ahal izateko, hileko alokairu-errenta ordaintzeko soldataren % 30 baino gehiago erabili behar izan gabe	% 67,9	2019
GAZTE EMANTZIPATUEN ETXEBIZITZAK		
Jabetzako etxebizitza batean bizi diren 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa	% 42,3	2019
Alokatutako etxebizitza batean bizi diren 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa	% 45,1	2019
Familiakoek edo enpresak doan edo prezio baxuan lagatutako etxebizitza batean bizi diren 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa	% 12,5	2019

Etxebizitza erabilietan bizi diren 18-34 urteko pertsona emantzipatuen ehunekoa	% 83,0	2019
18-34 urteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren batez besteko antzinatasuna	42 urte	2019
18-34 urteko gazte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren batez besteko tamaina	77,4 m ²	2019
EMANTZIPATU GABEKO GAZTEEN ETXEBIZITZA-PREMIA, LEHENTASUNAK ETA ETXEBIZITZA ESKURATZEKO AUKERAK		
Euskadin etxebizitza behar duten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen ehunekoa	% 32,8	2019
Euskadin etxebizitza-premia duten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen artean, etxebizitza udalerrri berean egotea nahiko luketenen ehunekoa	% 79,0	2019
Euskadin etxebizitza-premia duten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen artean, bi urteko epean emantzipatzea aurreikusten dutenen ehunekoa	% 34,6	2019
Euskadin etxebizitza-premia duten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen artean, etxebizitza bat eskuratzeko diru-sarrerara nahikoa eta egonkorak dituztela dioten ehunekoa	% 22,8	2019
Euskadin etxebizitza-premia duten eta diru-sarrerara propioak dituzten 18-34 urteko pertsona emantzipatu gabeen artean, hilean bere gain har lezaketen batez besteko gastua	483 €	2019
EMANTZIPAZIORAKO LAGUNTZA PUBLIKOAK		
Etxebizitza babestuen parkea	76.452	2019
Alokairuko etxebizitza babestuen parkea	23.594	2019
Alokairuko etxebizitza babestuen ehunekoa, etxebizitza babestuen parke osoarekiko	% 30,9	2019
Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestua eskatzeko espedienteak, titularrak 30 urtetik beherakoak izanik	20.772	2020ko III. hiruhilekoa
Etxebiden erregistratutako erosketa-erregimeneko etxebizitza babestua eskatzeko espedienteak, titularrak 30 urtetik beherakoak izanik	7.812	2020ko III. hiruhilekoa

Etxebiden erregistratutako alokairu-erregimeneko etxebizitza babestua eskatzeko espedienteak, titularrak 30 urtetik beherakoak izanik	12.960	2020ko III. hiruhilekoa
Alokairu-erregimeneko etxebizitzak eskatzeko espedienteen ehunekoa, Etxebiden erregistratutako etxebizitza babestua eskatzeko espediente guztiekiko, beti ere titularrak 30 urtetik beherakoak izanik	% 62,4	2020ko III. hiruhilekoa
18-35 urteko gazteei esleitutako etxebizitza publikoak	3.275	2020
18-35 urteko gazteei esleitutako etxebizitza publikoen ehunekoa, esleipen guztiekiko	% 25,9	2020
18-35 urteko gazteei erosketa-erregimenean esleitutako etxebizitza publikoak	917	2020
18-35 urteko gazteei alokairu-erregimenean esleitutako etxebizitza publikoak	2.358	2020
Alokairu-erregimenean esleitutako etxebizitza publikoen ehunekoa, 18-35 urteko gazteei esleitutako etxebizitza publiko guztiekiko	% 72,0	2020
Gaztelagun programaren barruan alokairurako laguntza-eskaera aktiboak	1.620	2020ko abendua
Gaztelagun programaren barruan alokairurako laguntzak jasotzen dituzten onuradunen batez besteko diru-laguntza pertsonako	219 €	2020ko abendua

BIBLIOGRAFIA

Bilbao, Miren; Corcuera, Nieves eta Longo, Oskar (2020): *Gazteak, emantzipazioa eta etxebizitza-premia Euskadin 2019* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_emancipacion/eu_def/adjuntos/Txostena_ENDV_Behatoki_eus.pdf

Etxebide, Etxebizitzaren Euskal zerbitzua [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-etxebide/eu/>

Etxebizitzaren Behatokia (2017): *Etxebizitza eta gazteak Euskadin* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_jovenes17/eu_ovv_ana/adjuntos/gazteak.pdf

Etxebizitzaren Behatokia (2020): *Etxebizitza Politiken Ebaluazio Integralaren Txostena 2019* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_pol2020/eu_ovv_admi/adjuntos/Ebaluazioa_2019.pdf

Etxebizitzaren Behatokia (2020): *Euskadiko alokairu-politikaren ebaluazio txostena* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_alqu_2019/eu_ovv_admi/adjuntos/Alokairua_2019.pdf

Etxebizitzaren Behatokia (2020): *Bizigune programaren ebaluazio txostena* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_bzg/eu_ovv_admi/adjuntos/Ebaluazioa-Bizigune-2020.pdf

Etxebizitzaren Behatokia (2020): *ASAP programaren ebaluazio txostena* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_asap20/eu_ovv_admi/adjuntos/ASAP_20_eu.pdf

Etxebizitzaren Behatokia (2020): *Gaztelagun Programaren Ebaluazioa 2020* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovv_gaztelagun20/eu_ovv_admi/adjuntos/Gaztelagun_Ebaluazioa_2020.pdf

Etxebizitzaren Behatokia: *2019ko Higiezinaren Erregistro Estatistika 4. Hiruhilekoa* (Excel taulak) [linean] Hemen eskuragarri: https://www.etxebide.euskadi.eus/x39-ovse04/eu/contenidos/estadistica/ovv_registral19/eu_def/index.shtml

Eurostat: Data [linean] Hemen eskuragarri:

<https://ec.europa.eu/eurostat/web/main/data/database>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2018): *AGINDUA, 2018ko abenduaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailburuarena, etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautzen dituen eta deialdia egiten duena* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/12/1806381e.shtml>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2019): *AGINDUA, 2019ko abenduaren 10ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita etxebizitzaren alokairurako Gaztelagun programaren laguntzak arautu eta deialdia egiten duen agindua* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/12/1905757e.shtml>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2013): *466/2013 DEKRETUA, abenduaren 23koa, «Bizigune» Etxebizitza Hutsen Programa arautzen duena* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2013005596>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2019): *144/2019 DEKRETUA, irailaren 17koa, Merkatu libreko etxebizitzak alokatzeko ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) bitartekaritza-programa arautzeko dena* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004423>

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (2015): *3/2015 LEGEA, ekainaren 18koa, Etxebizitzarena* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/r47-bopvapps/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2015002853>

Eusko Jaurilaritza: *Etxebizitzaren Gida Plana 2018-2020* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/2018_20_0/eu_def/adjuntos/2018_2020_A_EP.pdf

Eustat, Euskal Estatistika Erakundea [linean] Hemen eskuragarri: <https://eu.eustat.eus/indice.html>

Gazteen Euskal Behatokia (2021): *Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2019* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.gazteaukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_emancipacion/eu_def/adjuntos/emantzipazioa_19_e.pdf

Gazteen Euskal Behatokia: *Estatistikak online* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/r58-ovjestat/eu/estadistikak/temasV1.apl?idioma=e&ambito=1>

Gazteen Euskal Behatokia: *Ikerketak eta argitalpenak: Aurrera begira* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.gazteaukera.euskadi.eus/gazteen-euskal-behatokia/ikerketak-eta-argitalpenak/-/aurrera-begira-eu/>

Gazteen Euskal Behatokia: *Ikerketak eta argitalpenak: Emantzipazioa* [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.gazteukera.euskadi.eus/gazteen-euskal-behatokia/ikerketak-eta-argitalpenak/-/egb-emantzipazioa/>

Gazteen Euskal Behatokia (2020): “Seme-alabarik ez duten Euskadiko hamar gaztetik zazpik aita edo ama izan nahi dute etorkizunean” artikulua [linean] Hemen eskuragarri: https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/estadistikak_2020/eu_6778/adjuntos/maternidad_paternidad_2020_e.pdf

Gazteen Euskal Behatokia (2020): “Euskadiko eta, oro har, Europako biztanleriaren batez besteko adina ez da batere gaztea” artikulua [linean] Hemen eskuragarri: https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/estadistikak_2020/eu_6778/adjuntos/edad_media_e.pdf

INE, Instituto Nacional de Estadística [linean] Hemen eskuragarri: <https://www.ine.es/>

Longo, Oskar; Bilbao, Miren eta Corcuera, Nieves (2018): *Gazteen emantzipazioa Euskadin 2017* [linean] Hemen eskuragarri: https://www.gazteukera.euskadi.eus/contenidos/informacion/ovj_coleccion_gazteak/eu_liburuak/adjuntos/Emancipacion%20de%20la%20juventud%202017_eus.pdf